

**innobasque**

berrikuntzaren euskal agentzia  
agencia vasca de la innovación

txostena

2014

# Berrikuntzaren itzulera zeure esku duzu



Tinta termokromatikoz diseinatutako ataria (beroak aldatu egiten du).

PETRONOR-ek burututako azala

# Global innovation day

Berrikuntza aurrera doa!

**Erreserba ezazu  
data zeure agendan!**

**3**

**EKAINA**

**Txokoak  
Tailerrak  
Hitzaldiak**

**Ekintzaileen proiektuak  
Networking  
...**

**Global Innovation Day 2015 eraikitzen ari gara.**

Gune horretan honako hauek egin ahal izango dituzu: merkatuko produktu eta zerbitzu berritzaileenak aurkitu eta erakutsi, esperientzia aberasgarrien bitartez berrikuntza bizi, arrakasta-kasuak ezagutu eta harremanetan sartu Euskadiko erkidego berritzailea osatzen duten pertsonekin.

Bat egizu berrikuntzako hitzordu handi horrekin txokoak eta tailerrak antolatzeko proposamenak bidaliz.

Informazio gehiago eta harremanak: [bseijas@innobasque.com](mailto:bseijas@innobasque.com)

**Ezin dezakezu gal!  
Parte har ezazu!**

**KONEKTATZEN  
EGITEN  
BERRITZEN**

**CONECTAMOS  
HACEMOS  
INNOVAMOS**

editoriala 4-5

2 minututan 6-7

**urteko protagonistak** 8-15

berrikuntza-apunteak 16-19

innobasque albisteak (1) 20-27

**5 gako ...** 28-29

innobasque albisteak (2) 30-35

sarean 36-37

honako hau partekatu nahi dut 38-39

innobasque albisteak (3) 40-47

euskal berrikuntza sare sozialetan 48-49

munduari bira berrikuntzaren bitartez 50-53

**berrikuntzarako guneak** 54-55

innobasqueren balioa ... 56-59  
gure bazkideak



e

# Aprobetxa dezagun 2015a

Pertzepzio itxaropentsuak ahalbidetzen dituzten datuekin bukatu dugu urtea. Hori oso garrantzitsua da, zeren eta ekonomia eragile ekonomiko guztien pertzepzioen mendea baitago, gizartea barne dela, eta gizarte eragileek ingurunea hobetzen ari dela hautematen badugu, erabaki positiboak hartuko baititugu inbertsio-, kontratazio, edota kontsumo-terminotan, zeinek biderkatu duten lehen pertzepzio positibo horien efektua.

Baldin eta galdetzen badugu zein izango den berrikuntzaren eginkizuna ingurune berriari begira, zeinean datu makro ekonomikoek diruditen krisiaren eta berreskuratze ekonomikoaren arteko igarobidearen hasiera adierazten dutela, erantzuna argi eta garbia da. Berrikuntza inoiz baino beharrezkoagoa da eta izango da, edozein barrutitan, edozein ingurunetan, edozein zirkunstantzian. Ez dezagun, gainera, begietatik gal Euskadi

dela, une honetan Iberiar Penintsulako erregio bakarra, zeina mantendu den krisialdian erregio "ohargarrien" edo "follower", berrikuntza europar erregio liderren jarraitzaile direnen artean. Hori, zalantzarik gabe, lorpen bat da abagunea kontuan hartzen badugu. Baina ez gara horrekin konformatzen, izan ere Lehendakariak Astearen inaugurazioko hitzaldian, hori ez egitera bultzatu gintuen, behin eta berriz esanez berrikuntza dela Euskadiren erronka, eta berriki honako hau adierazi du: "berrikuntza egiten duten enpresen kopurua gehitu, ehun industrialera I+G+b-aren transferentzia handiago bat bermatu eta eginkizun berritzailean txertatu behar duten 3.000 ete gehiagoren kopurua gehitu beharrean gaudela."

Orain iritsi zaizun txosten hau 2014ko Innobasque sareko jardueraren kontakizun labur bat bezala irakur daiteke,



### Alberto García Erauzkin

Innobasqueko Presidentea

berrikuntzaren aldeko itun publiko eta pribatuaren bulkada partekatuaren lagin adierazgarri bat eskainiz. Ikaskuntzak eta aurrerapenak, gure orainaldia marratzen ari diren proiektuen, erakundeen eta pertsonen albisteak aurkituko dituzu. Pertsona horiek, batez ere, ekimen desberdinen bitartez, berrikuntzak eragiten ari dira, bi gauzatarako gero eta beharrezkoagoak direnak: dagoeneko badugun, eta lortzea kostatu zaigun giza garapenaren maila babesteko, eta aukera berriak miatu eta errealtate bihurtzeko ere bai. Guztiek ekarpena egiten dute garapen berria sortzeko, ingurune estimulagarri bat eragiteko, non euskal belaunaldi berriek beren potentzialtasun guztia garatu eta beren premia guztiak ase ahal izan ditzaten.

Etorkizunak, ikusten ari garenak, berrikuntza eskatzen du, eta gure egunerokoan eta pertsonen bizitzan

eragina duen berrikuntza saritzen du. Nola gauzatzen da hori enpresen %99,5 mikroete edo etezko agertoki batean? Lankidetzak gehiagorekin. Lankidetzak gehiago nazioarteko agertokian diluitzeko arriskua kudeatzeko. Lankidetzak publiko-publiko gehiago behar dugu, lankidetzak publiko-pribatu gehiago eta lankidetzak pribatu-pribatu gehiago behar dugu. Une hauetan sineskorra da lehiakide izatea agertoki global batean bakoitza bere aldetik ibiliz, zeinean lehiakide eta lankide diren alderdi guztietako, neurri guztietako enpresak.

Zehaztasunez egin behar dugu geure erronken diagnosis, eta konponbide irudimentsu eta desberdinen bitartez haiek ebatzi, eta gero arrakastaz gauzatzeko gai izan behar dugu konponbide horiek, eta esan dugun bezala, lankidetzan arituz. Horrela egiten badugu, hor dugu berrikuntza jardunean ezarria. Eta

jardunean ezartze hori ez da ezinbestez zirkunstantzien baitan egongo, baizik eta gure baitan. Ideia hori Innobasquen egiteko gai garen horrekin kidegurik dago. Gai gara pertsona berritzaile, konformagaitz, eraikitzaileak batzeko, erronkak eta konponbideak definitzeko antolatzen direnak, eta aberastasun, enplegu eta ongizatezko etorkizunari aurre egiten lagunduko diguten jarduerak burutzeko. Aprobetxa dezagun 2015a.

# 2 minututan



Argazki: Irekia

> 2014 kopurutan: **14.000** pertsona mobilizatu, **2.828** inpaktu prentsan, **40.591** soslai sare sozialetan, **162** bideo berri Youtuben, **140** aurkezpen berri Slideshare-n.

> Euskadik europar **proiektuen 25** kudeatzaile berri ditu. "I+G-b-ko nazioarteko proiektuen kudeaketa-ikastaro aurreratuaren" 3<sup>o</sup> edizioa burutzen da.

> ZTBP 2020, Euskadi ikerkuntza eta berrikuntzako erreferente bezala Europar kokatzeko plana.

> **Berrikuntza eta Lankidetzaren** nekazaritzako elikagaien sektorerara eta landa- eta itsasertz-ingurunera iritsi dira Katiluren eskutik.

> **Gobernantza eta hiritarren** partaidetzako eredu berri baterako bidean Euskadin. **Liburu Zuria** aurkezten da.

> Gizarte-ekintzailerak "jokoan". Innobasque "Social innovation for communities" eta "Gamechangers 2014" ekimenen epaimahaiko.



> **Sektore arteko** lankidetzak euskal manufakturaren erronkei erantzuteko funtsezko atala.

> Bizimodu osasungarriko ohiturak sustatzen gizaratean. **8 euskal ekimenek** Gosasun zigilua jaso dute.

> **iNNvest** sarea Holandara doa nazioarte mailako cleantech proiektu berritzaileak ezagutzeko.



Argazki: Tech Tour



> Euskal berrikuntzako protagonistak Global Innovation Dayko 3<sup>o</sup> edizioan elkartuko dira.

> **Iñigo Urkullu**, Lehendakariak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako XIV Astea inauguratu du.

> Ezagutza eta lankidetzak, berrikuntzaz gaitza Innobasque Exchangen.

> **350** euskal ikaslek berrikuntza egin dute FIRST Lego League Euskadiko edizio berrian ikaskuntza-erperientzia hobetzeko.

> Euskal berrikuntzako sarea eraikitzen. **55** erakunde berri erantsi zaizkio Innobasqueri.

urteko

# pro tagonistak

## IK4-Ikerlan industriako CO<sub>2</sub>aren igorpenak murriztea helburu duen europar proiektu batean partaide

IK4-Ikerlan teknologia-zentroa partaide da "Reemain" europar proiektuan, zeinek garatuko dituen energia kudeatzeko lanabes multzo bat industria-sektoreko CO<sub>2</sub> igorpenak eta elektrizitate-kontsumoa murriztea ahalbidetuko dituena. Ekimen horrek 9,8 milioi euroko aurrekontua du, fabrika batean energiaren kudeaketarekin zerikusia duten xehetasun guztiak analizatuko dituen software bat garatuko du eta, simulazio iragarlezko programa baten bitartez prozesatu ondoren, instalazioko energia-efizientzia hobetzeko ekintzak proposatuko ditu.

Iturria: [Lainformacion.com](http://Lainformacion.com) [2014ko urtarrilak 30] Argazkia: Ikerlan



## Minirobots enpresa bizkaitarrak errusiar eskolak 2.000 robot hezigarritz hornitu ditu

mOway programazioa heziketa-zentroetara era sinple eta dibertigarrian hurbiltzeko diseinatutako robota da. Berriki, Minirobots enpresak urrats handi bat egin du nazioarteko merkatuan, bigarren mailako zenbait eskola errusiar heziketa-lanabes horiez hornituz.

Guztira, eta lizitazio publiko bati esker, 2.000 mOway robot baino gehiago ezarri ditu eta beste hainbeste osagarri (kamerak, wifi moduluak eta hedapen-kitak), Moskun eta Ossentian kokatutako heziketa-institutuetako laborategietan 400 Smart City ezartzean gain.

Iturria: [Euskadi+innova](http://Euskadi+innova) [2014ko otsailak 24]  
Argazkia: Minirobots



## Ikerbasquek 2013an ia 17 milioi balioko funtsak erakarri zituen

Ikerbasque, Zientziarako Euskal Fundazioko 151 ikertzaileek, zeinak I+G-eko euskal unibertsitate eta zentroetan beren ikerketalana garatzen ari diren, 2013an ia 17 milioi euro balioko funtsak erakarzteko 248 proiekturen garapenarekin.

Era berean, 20 herrialdetakoak diren ikertzaile horiek 670 inpaktu-artikulu argitaratzea lortu dute ospe handieneko zientzia-bitartekoetan.

Iturria: [Europa Press](http://Europa Press) [2014ko martxoak 13] Argazkia: Irekia






## Eusko Jaurlaritzak 4,5 milioi inbertitu ditu sektore eolikorako Fabrikazio Aurreratuko zentro berri batean Eibarren

Eusko Jaurlaritzak bultzatu egin du, zortzi euskal enpresarekin, Energiaren Klusterrarekin eta IK4-Tekniker teknologia-zentroarekin Fabrikazio Aurreratuko Zentro bat sektore eolikorako, zeinean hasiera batean 4,5 milioi euro inbertituko dituen eta zeina Eibarren kokatuko den.

Proiektu horretan, zeinekin Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasuneko sailak Fabrikazio Aurreratuko Estrategiaren ezarpena hasten duen, honako euskal enpresa hauek parte hartzen dute: Antec, Gamesa Electric, Gamesa Transmission Systems, Hine, Glual, Lau Lagun eta Wec.

Iturria: **Diario Vasco** [2014ko martxoak 27] Argazkia: Irekia



## Euskadi da euro-erregioaren liderra Akitaniarekin batera lehen aldiz eta 2016 arte izango da haren buru

Euskal Herriak, Iñigo Urkullu bere lehendakariaren figuran, lehen aldiz hartuko du gaur, eta mugaz gaindiko lankidetzan bi hamarkada baino gehiago jardun ondoren Euskadi-Akitania euro-erregioaren lehendakaritza, Bordelen egingo den ekitaldi batean, eta bertan, orain arte haren presidente izan den Alain Roussetek lekukoa utziko du euskal Exekutiboaren eskuetan datozen bi urteetarako.

Euskadik bere gain hartzen du 5 milioi baino zertxobait pertsona gehiagoz osatutako euro-erregio horren errotaziozko presidentetza, ekonomia, ingurumena, hezkuntza eta kultura bezalako barrutietan sinergiak sendotzeko, eta batez ere, bi gobernuak lerrotzeko Europak markatzen dituen gida estrategikoekin.

Iturria: **El Mundo** [2014ko apirilak 28] Argazkia: Irekia

## Mondragonek bere heziketa-eredua Amerikara eta Saudi Arabiara esportatzen du

Mondragon Nazioarteko Hezkuntzak (MNH) sendotu egin du bere heziketa-proiektua Kolonbian eta Mexikon bi unibertsitate eta Saudi Arabian goi-mailako lanbide-heziketako lau zentro kudeatuz. Horretara, Mondragon Unibertsitateak bere heziketa-esperientzia esportatzea lortu du eta xede-herrialdeetako hezkuntzaren "gaitz endemikoei" erantzuna ematea, besteak beste, eskaintako titulazioen eta enpresen edo sistemaren kalitatearen beharren desdoikuntzari.

Iturria: **El País** [2014ko maiatzak 27] Argazkia: Mondragon Educación Internacional



## Bilbok eta Bizkaiak euskal enpresen hogeitarrak erakutsi dituzte Singapurren

Bilbok beste urtebetez parte hartuko du Hirien Mundu Gailurrean (World Cities Summit) zein datorren igandetik asteazkenera arte Singapurren egingo baita, non Aldundiarekiko lankidetzan, nazioarteko presentzia duten eta hiri-irtenbideetan eta zerbitzu aurreratutan espezializatutako euskal enpresen hogeitarrak erakutsi dituen: Artech, BBVA, CAF, FactorCO<sub>2</sub>, Gamesa, Gerdau, Iberdrola, Ibermática, IDOM, Ikusi, INBISA, Ingeteam, LKS, Mesa, Ormazabal, Orona, SAITEC, Sener, Tecnalia eta Vicinay.

Gailur-bileraren leloa honako hau izango da: "Hiri bizigarri eta jasangarriak: erronka komunak, konponbide partekatuak".

Iturria: **El Correo** [2014ko maiatzak 30]  
Argazki iturria: World Cities Summit



## Deustuko Unibertsitateak Hiritartasun Eskola aurkeztu du

DeustoBide-Hiritartasun Eskola Deustuko Unibertsitateak "La Caixa" Gizarte Ekintzaren laguntzarekin ikaskuntza bizitza guztian zehar sustatzeko gizareratuako proiektu berri bat da ezagutza hedatzera, elkarriketa indartzera eta gizarte arduratsu eta jasangarriago bat garatzera pertsonen baliabideak eskaintzera zuzendutako metodologia eta gai-zerrenda batzuekin.

Gai-zerrendak humanitateak, gizarte-zientziak, hezkuntza, psikologia eta ekonomiari loturik daude, beste barruti batzuekin, nahiz eta eskolak dagoeneko aurreikusita duen bere prestakuntza-eskaintza zabaltzeko asmoa partaide izango diren pertsonen beharren arabera.

Iturria: **Euskadi+innova** [2014ko ekainak 27]  
Argazkia: Deustuko Unibertsitatea



## Bost euskal enpresek automozio-hiztegi bat sortu dute sei hizkuntzatan

Argitalpen hori Batz, Cikautxo, Ekin, GKN eta Maier-ek landu dute, Elhuyar fundazioaren lankidetzarekin, automozioaren sektoreari buruzko terminologia egoki baten erabilera errazteko asmoz konpainia horiek nazioarteko merkatuetan sartzeari mesede egiteko.

Hiztegiak eremu horrekin zerikusia duten hitz nagusiak aurkezten ditu honako hizkuntza hauetan: ingelesa, gaztelania, euskara, frantsesa, alemana eta txinera.

Iturria: **Finanzas.com** [2014ko uztailak 6]  
Argazki iturria: Elhuyar



## BC3 klima-aldaketako politikan munduko bigarren "think tank" handiena bezala aitortua

BC3, Basque Centre for Climate Change, eragin handieneko munduko bigarren "think tank" bezala aitortua izan da ekonomiaren eta klima-aldaketaren gaian ICCG (International Center for Climate Change Governance) erakunde publiko eta pribatuek landutako sailkapenaren arabera, zeinean herrialde desberdinetako 295 erakunde publiko aztertzen diren.

Joan den urtean, BC3k lehen postua lortu zuen europar sailkapenean. 2014an, ICCGk munduko zentro guztiak sailkapen bakarrean elkartu ditu. Basque Centre for Climate Change Massachusetts-eko Woods Hole Research Centre-k soilik gaingitu du, Estatu Batuetan.

Iturria: **Deia** [2014ko uztailak 9] Argazkia: BC3



## Osakidetzako ospitaleak partaide dira energia berriztagarrien erabilera gehitzeko europar proiektu pilotu batean

Galdakao-Usansolo, Gorliz eta Gurutzetako ospitaleak Berrikuntza eta Osasun Ikerkuntzako euskal Fundazioarekin (BIOEF) batera partaide dira "karbono-hatzik gabeko ospitaletarantz Energia Berriztagarriko Sistemekin" deritzon europar proiektu pilotuan.

Proiektu horren helburua energia-efizientziako neurrien eta energia berriztagarriko sistemen erabilera gehitzea da 15.000 europar ospitaletan, horietatik 760 Espainian kokatuak, eta CO<sub>2</sub> isurpenak murriztea.

Iturria: **ABC**[2014ko uztailak 22]  
Argazkia: Irekia

## "The International Journal of Developmental Biology" UPV/EHUko aldizkaria, Estatuko argitalpen ospetsuena

"The International Journal of Developmental Biology" UPV/EHUk argitaratutako aldizkari profesionala herrialdeko argitalpen ospetsuena da ezagutza-eremu guztietan, Google Scholar Metrics-en (2009-2013) H5 Indize berriaren arabera. Garapenaren Biologiari buruzko UPV/EHUko argitalpen horrek balioespen altuena du konpainia estatubatuarrek aztertutako 1.003 espainiar aldizkariaren artean.

Iturria: **Ehu.es** [2014ko uztailak 28] Argazkia: UPV/EHU



## Euskadik arinki gainditzen du EBeko herrialdeen batez bestekoa I+G-eko inbertsioan

Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa eta Garapeneko gastuari eutsi egin zaio krisian eta Europar Batasuneko eta Espainiakoa orokorrean hartuta baino erritmo biziagoan hazi egin da.

2012ko azken datu ofizialen arabera, EAEn I+G-eko inbertsioa euskal BPGaren %2,1 da. Herrialde eskandinaviarrak dira europar lider nabarmenak sailkapenean %3,5en hurbileko ratio batzuekin eta ondoren alemaniar eta austriar ekonomiak datoz, %3ren pixka bat azpitik. Euskadi gero eta hurbilago dago bigarren taldetik, zeinean Frantzia (%2,29) den herrialde nabarmendua.

Iturria: **Noticias de Gipuzkoa** [2014ko abuztuak 14]



## Dagoeneko abiatu da Inclusive Smart School, behar bereziak dituzten ikasleak integratzeko ikasgela

Ikasturte honetan inauguratuko da Donostiako Axular Lizeoa Ikastolan Inclusive Smart School proiektuko garapen eta integratzearen lehen ikasgela. Gune horrek heziketa-behar bereziak dituen ikasleria eskolan integratzeko teknologia berriak darabiltza. Mahai interaktiboak eta Kinect gailuak ditu heziketa, motrizitate, logopedia eta adierazpenaren esparruetan, besteak beste, jarduera laguntzaileak burutzeko. Halaber, ordenagailuz, tabletez eta smartphonez hornituriko banakako languneak egokitzeko aukera ere ematen du.

Inclusive Smart School EIC BBK-k bultzatutako proiektu bat da, E Health eta heziketan espezializatutako teknologia-berrikuntzako zentro bat, Dravet Sindromea Fundazioaren osagai dena.


Iturria: **Euskadi+innova** [2014ko irailak 5]

## Euskal dronak Silicon Valleyren gainean

Erle Robotics euskal konpainiak lehen aldiz lortu du munduan dron bati (aire-ibilgailu ez-tripulatua) hegaz eragitea Linux sistema operatiboaren mende. Gainera, Silicon Valleyren (EE.BB.), teknologiaren santutegia denaren gainean aparatuari hegaz eraginez egin du hori.

Linux sistema operatiboa duen drona euskal firmaren produktu izarretako bat da, zein robotikako konpainia hasiberri itxaropentsuenetako bat bezala aitorturik dagoen, Robot Launchpaden arabera.

Iturria: **Eitb.eus** [2014ko irailak 8]  
Argazkia: Erle Robotics



## Virtualware Europar Batzordeak saritua

Europar Batzordeak Erresuma Batua, Txekiar Errepublika, Hungaria, Alemania, Grezia eta Espainiako zenbait enpresa saritu ditu, joan den irailaren 23an Bruselan egindako sari-banaketan. Zeremonia horretan europar merkatuari arrakastaz ekiteko aukerak baliatzen ari diren eteak saritu dira.

Virtualware, Ateknea hungariar enpresarekin batera, izan da irabazlea "New Success: A vision for the future" kategorian TACMON2 ikerketa-proiektuarengatik, zeinen xedea tableta bat garatzea den ikusteko desgaitasuna duten pertsonentzat.

Aitortza hedagarria da EEN sareko euskal nodora, zein eratzen duten Innobasquek, Spri eta Araba, Bilbo eta Gipuzkoako Merkataritza Ganbarek, eta EBaren baitan enpresen arteko lankidetzak Bizkaiko eteen artean bultzatzeko haren ahalegiarengatik.

Iturria: **Virtualware** [2014ko irailak 25]  
Argazkia: Europar Batzordea



## Danobatek kontratu bat lortu du Indian trenentzako ardatzak hornitzeko

GHH-Bonatrans India-k kontratu bat esleituko dio Danobati trenbideetarako ardatzak diseinatu, fabrikatu eta hornitzeko, eskuan giltza dela. Proiektu hori ez da makinetera soilik mugatzen, baizik eta ingeniarietza espezializatua barnebiltzen du instalazio horiek diseinatu, integratu eta zerbitzuan jartzeko.

Kontratu horrekin Danobatek sendotu egiten du bere mundu-mailako lidergoa sektore aurreratuentzat eskuan giltza dela instalazioen hornitzaile bezala, trenbide-industriako kasuan bezala.

Iturria: **TUlankide** [2014ko urriak 6]  
Argazkia: Danobat Group

## Tecnalia eta IK4 "zero akatsen" fabrikazioan ari dira lanean Europan

Tecnalia eta IK4 euskal teknologia-korporazioak partaide dira "zero akatsen" fabrikaziorantzko garapenetan Europan. Garapen horien emaitzak automozioan, medikuntza teknologian, energian, aeronautikan eta industrian probatuko dira nagusiki.

Bi korporazio horiek "4ZDM, Four Zero Defects Manufacturing"-en osagai dira, zein den europar kluster bat "akatsik gabeko" fabrikazio-kontzeptuaren azpiko lau proiektuk eratua, zeina lider den akatsak prebenitu eta haiek saihestea ahalbidetzen dituzten garapenetan, era ohargarrian murriztuz ez-kalitatetik eratorritako kostuak.

Iturria: **Europa Press** [2014ko urriak 13]  
Argazkia: Ideko




## Zazpi euskal empresa Embraerko proiektu berrian

Euskal industria-sektore aeronautikoak aurten ere joan den 2013ko abiada onarekin jarraitzen du, hegazkinak fabrikatzeko programa berrietan sartuta. Ofizialki aurkeztutako azken proiektua Embraer KC 390 Gavião Peixoton (Sao Paulo) atzo aurkeztutako garraio-hegazkin brasildarrarena da; ekimen horrek guztiak Hegan, Euskadiko kluster aeronautikoaren bazkideak diren zazpi euskal konpainiaren talde bat du hornitzaile bezala.

Embraer-en KC-390 hegazkin-programa bere industrializazio-fasean sartzen da nazioarteko enpresa hornitzaileen egitura zabal bat mobilizatuz. Hegazkina fabrikatzen Aernnova, Sener, Aciturri, Altran, Metraltec, CTA eta DYFA euskal firmak ari dira lanean hornitzaile bezala.

Iturria: **Noticias de Álava** [2014ko urriak 22]  
Argazkia: Intelligent Aerospace



## Euskal LHk 450 enpresa sortu ditu hamar urtetan eta horietatik %80 oraindik lanean ari dira

LHko zentroak Euskadin enpresak sortzeko "motor nagusi" bihurtu dira. Errealitate hori harrotasunez erakusten du Jorge Arévalo Eusko Jauriaritzako Lanbide Heziketako sailburuordeak. Datuak ditu sendogarri. 2004tik hasita 2014 arte Euskadiko LH Nagusian titulatu diren ikasleak, institutuak eta irakasleen laguntzarekin, 450 enpresa sortu dituzte, Urratsbat proiektuaren esparruan. Horietatik %80 funtzionatzen ari dira krisi ekonomikoa gorabehera. Lan-merkatuan hobekien txertatu diren firmak instalazio elektriko, elektroniko eta gas, informatika, automozio, ikus-entzunezko edo fabrikatze mekanikokoak dira, besteak beste.

Iturria: **Diario Vasco** [2014ko azaroak 10]

## Sener, RAIren Academiae Dilecta 2014 Sariaren irabazle

Ingeniaritzaren Errege Akademiaren batzar osoak (RAI) aho batez erabaki du "Academiae Dilecta" Saria Sener-i ematea 2014ko bere edizioan, bere sektorean liderra den ingeniaritzako espainiar enpresari dagokiona, zein eragile ekonomikoa gisa ari den gure herraldearentzat.

Jorge Sendagorta, konpainiako presidenteari emango zaio saria, datorren asteartean zeremonia batean eta bertan Ikertzaile Gazteentzako Sariak ere emango dira.

Akademikoek saria ematerakoan kontuan izan dute enpresak azterlanari esleitutako dedikazioa ingeniaritzako oinarri zientifiko eta teknikoaren ikerketan, haren ezarpen teknologikoak eta haren teknika operatiboak, bai eta haren proiektuari, garapenari eta egiteen ustiapenei dagokiena ere.

Iturria: **Actualidad Aeroespacial** [2014ko azaroak 11]  
Argazkia: Ingeniaritzako Errege Akademia



## Gorabidek Gizarte Boluntarioentzako Estatu Saria jasoko du

Adimen-ezgaitasuna duten pertsonen aldeko bizkaitar elkarte den Gorabide nabarmendurik geratu da Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak emandako 2014ko Gizarte Boluntariotzari emandako Estatu Sariaz. Saria Letizia Erreginak banatuko du azaroaren 27an eta "adimen-ezgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko haren boluntarioen ekintza zabal eta solidarioa" aitortzen du. Haren hautagaitza Boluntak aurkeztu eta Eusko Jaurlaritzak, Aldundiak eta beste probintzietako gizarte-sektoreko 40 erakundek babestu dute.

Iturria: **El Correo** [2014ko azaroak 25]  
Argazki iturria: Casa Real



## UNESCOk Bilbo erantsi dio Hiri Sortzaileen bere sareari, Diseinu-sailean

UNESCOk, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen erakundea, astelehen honetan jakinarazi du Bilbo erantsi diola Hiri Sortzaileen bere sareari, Diseinu-sailean.

Atxikitze-proposamena, aurtengo urtarrilean, hiriko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatu zuten, estrategia global baten esparruan, zeinek baititu lehentasunezko erronka gisa ekonomia eragitea, enplegu kualifikatua sortzea eta hirian espezializazioa eta enpresa-ehuna sendotzea.

Haren arduradunen iritziz, nazioarteko itun horri Bilbo gehitzeak zuzeneko inpaktua izango du Bilbo eta Bizkaiko industria sortzaileen etorkizunean, eta bertako profesionalengan, izan ere hemendik aurrera "irismeneko lanabes bat izango dute beren produktuak proiektatzeko, sektorean erreferenteak diren hiriekin harremanetan sartzeko eta gaitasun berriak eskuratzeko."

Iturria: **Eldiario.es** [2014ko abenduak 1]

## SEAk tentsio baxuko energiaren lehen erosketa-zerbitzu elkartua sortu du

SEA Arabar Enpresaburuen elkarteak Vitoria-Gasteizen aurkeztu zuen Estatuan enpresa-elkarte bat liderra duen tentsio baxuko energiaren lehen erosketa-zerbitzu elkartua. Ekintza aitzindari horren helburua honako hau da: "3.1A tentsio altuko tarifan tentsio baxuko hornidura eta kontsumo baxua duten enpresen energia-kostuak murriztea"; hau da, aurrezkoa areagotzea hamar arabar enpresatatik zortzitan, horiek baitira seinalatutako profila betetzen dutenak.

SEArri atxikitako enpresa guztiek jaso dezakete zerbitzua, bai eta tipologia ez-enpresazkoa duten arabar erakundeek ere.

Iturria: **Estrategia Empresarial** [2014ko abenduak]




# berrikuntza - apunteak

## Disrupzioa

Batzuetan nahaste bat sortzen da berrikuntzaren eta disrupzioaren artean, zeren eta, disruptore guztiak berritzaileak badira ere, berritzaile guztiak ez baitira disruptoreak. Clayton Christensen Harvardeko irakaslea eta disrupzioaren guruak dio disrupzioek desplazatu egiten dutela dagoen merkatu bat edo teknologia bat zerbait berriago edo efizienteago batez, eta gainera balio berri bat eragiten duela. Zerbait suntsitzaile eta sortzailea da aldi berean.

Begira diezaiogun munduari gure disruptoreen begiez. Ez dago enpresarik hain funtsezkorik ordeztua izan ezin daitekeenik eta ez dago negozio- edo sektore- eredu bakar bat aldaketetatik salbu dagoenik. Zer egin? Berrikuntza disruptibo gehiago? Baina, Nola? Nola ezar daiteke berrikuntza disruptibo kontzeptua era sistematikoan? Eta zuek, Nola egiten duzue hori?







## Euskal sukaldaritzaren berria, berrikuntza disruptiboaren adibidea. **Pedro Subijana**,

### Akelarre Jatetxea

70. hamarkadako erdialdean Madrilen ospatu zen, Revista Club de Gourmet s-ek antolatua, Gastronomía lehen Biltzarra. Garai horietan mundo-sukaldaritzan erakusle handiena zen Paul Bocuse gonbidatu zen Nouvelle Cuisine Française inguruko bere teoriak azaltzera. Bertan egiaztatu ahal izan genuen Paul gure lagunak zioena gure euskal sukaldaritzan zen horrekin guztiz bat zetorrela.

Donostiaranzko itzuleran, geure inguruko kideei deitu genien, geure sukaldaritzaren espiritua eta filosofia berrakibatuzeko asmoarekin.

Orduan ez zen "berrikuntza disruptiboa" kontzeptua erabiltzen. Ez dugu jakin orain duela gutxi arte berrikuntza eredu horri erantzuten zion sakoneko berrikuntza formula bat garatzen ari ginenik. Balio handia sortzen duen zerbait, baliozkoa den errealitate bat (euskal sukaldaritzaren tradizionala) eraldatu ondoren, horren hazkunde erraldoia eta mundu mailan haren proiektzioa ahalbidetu duen estadio berri batera iritsi ahal izateko (euskal sukaldaritzaren berria, goi sukaldaritzaren modernoa).

Mespretxatua eta erakargarritasun gutxiko ogibide baten onspen sozial eta profesionala lortu genuen. Lankidetzan eta banako mailan lan egitea lortu genuen elkar-lehiaketan. Gertaera horiek pentsaezina zen eremu batera eraman gintuzten; entzunak izatea gai ezberdinetako zientzialarien aldetik elkarrekin lan egiteko ezagutzen sakontzen duten lerroetan. Hori izan zen sua piztu zuen txinparta. Historia modernoaren krisirik luzeena etorrita eta gero, merkataritzaren nazionala erori den neuan, atzerritarrei esker lortu dugu hondoa ez jotzea. Baina ez hori bakarrik, baizik eta sortu den turismo gastronomikoak herri-irudiari eustea; gure etxeetara dator, baina aberastasuna sortu ere sortzen du gure inguruan.

Donostia eta herrialde osoa mapan jartzea lortu dugu gastronomiari dedikatutako lehen unibertsitatearekin: Basque Culinary Center. Autokritika, apaltasuna, nekaezintasuna, jakin-mina, zintotasuna, eskuzabaltasuna... geure aliatu onenak dira hori lortzeko. 70. urteetan Juan Mari Arzak-ek eta biok Paul Bocuse-n ahotik entzun genuen hitzaldi horren ondoren hasitako geure sukaldaritzaren sakoneko berrikuntza-prozesuak balio ekonomiko, sozial eta kultural handia sortu duela bistan dagoela iruditzen zait, bai eta berrikuntza disruptiboaren planteamenduak frogatzen dituela ere, horiek ongi fokatzeko direnean, emaitza izugarri itxaropentsuak emanez. Baina ezin daiteke ahaztu, lortutako aurrerapenak gorabehera, prozesu horiek, beste edozeinek baino gehiago, pedalei indarrez eragiten jarraitzea eskatzen dutela. Eta horretan ari gara...

## Iberdrola: Berrikuntza disruptiboa energiaren jasangarritasunaren zerbitzuan.

**Agustín Delgado**, Iberdrola Taldeko

Berrikuntza-zuzendaria

Asko idatzi da azken urteotan berrikuntza disruptibo kontzeptuari buruz. Clayton Christensen Harvardeko irakaslea, gai horri buruzko teoria nagusi baten egileak dio disruptzioek desplazatu egiten dutela dagoen merkatu bat edo teknologia bat zerbait berriago edo efizienteago batez, eta gainera balio berri bat eragiten dutela.

Haren definizioa kontrajarri egin ohi zaio gehikuntza- eta bilakaera-berrikuntzari, zeinek bilatzen duen gaurko negozioa eta teknologia erakunde edo merkatu baten barruan hobetzea. Iberdrolan, jabeturik gaude berrikuntzaren garrantziaz eta horregatik dugu berrikuntza-eredu deszentralizatu eta ireki bat, zeinen bitartez urtero 150 milioi euro bideratzen ditugun I+G+b proiektuetara gure negozioaren jasangarritasuna ziurtatzeko.

Eredu horrek konbinatu egiten ditu gehikuntza- eta bilakaera-berrikuntzari efizientzia hobetzeko eta gaurko gure negozioaren ingurumen-inpaktua murrizteko berrikuntza disruptiboko jarduerekin batera, zeinek ahalbidetzen gaituzten prestaturik egotea etorkizuneko negozio berrietarako energiaren esparruan.

Berrikuntza disruptiboko jarduerak "Iberdrola Ventures-PERSEO", venture kapitaleko gure ibilgailuaren bitartez fokatzeko dira, zein dagoen 70 milioi euroz hornitua energia-ereduaren jasangarritasuna ziurtatuko duten teknologietan eta negozio disruptibo berritan inbertitzeko. 2008an sortu zenetik, PERSEOn bitartez 40 milioi euro baino gehiago inbertitu ditugu start-upetan, zeinek garatzen dituzten teknologiak eta negozio berriak energia-sektorean mundu guztian.

Horren adibide on bat PERSEOn bitartezko arestiko gure inbertsioa da Silicon Valley-n egoitza duen Stem start-upean, zeinek merkaturatzen baititu energia banatuaren biltegitratze-irtenbideak energia-efizientzia hobetzeko bezero komertzialen eta industrialen instalazioetan. Stemek hurbildu egiten ditu energiaren mundura biga data eta cloud computing kontzeptuak, emaitza bikainak lortuz energia-efizientziaren barrutian, eta berriki horrek balio izan dio 85MW energiaren biltegitratze banatuko kontratu bat egiteko, izaera eta tamaina horretako lehena mundu guztian.



## Danobat Group berrasmatzeara.

**Antxon López Uoz**, Danobat Group-eko berrikuntza zuzendaria

Danobat Group, europar makina-erreminta fabrikatzaile asko bezala, bidegurutzean aurkitzen gara: alde batetik, serie handiak fabrikatzen, geroz eta kalitate handiagokoak eta hazten ari diren, batik bat asiar hego-ekialdeko herrialdeen soldata kostu murriztagoak aprobetxatu dituztenen, eta bestetik, industria tradizio luzea duten Alemania, Suitza edo Italia bezalako jatorriak dituzten herrialdeen artean.

Testuinguru horretan, azken urteetan Danobat Group-en "berrasmatzeko" ahalegina egin dugu, makina-erremintak hornitzen zituen enpresa multzoa izatetik, bezeroei balio erantsi altuko osagaien fabrikatzean irtenbide guztiz berriak eskaintzen dituen enpresa talde izatera.

Soluzio horiek berrikuntzaren alde egindako apustuaren emaitza dira, ez bakarrik diseinatzen ditugun produktuetan, halaber, teknologia aurreratuenak geure bezeroen fabrikatze-prozesuetan erantsi ditugu, beren beharretara egokitzuz, eta produkzio-sistemak lehiakorragoak izateko elkarrekin lan eginez.

Aldaketa horrek bezeroekiko harreman-dinamikak eta barne-kudeaketa birplanteatzera eraman gaitu, baita soluzio integralak eman ahal izateko hornitzaile espezializatuekin lankidetzara sareak garatzera ere behartu gaitu. Eta agian garrantzitsuena dena: negozio-eredu berri hau praktikara eramateko kalifikazio altuko pertsona taldea sendotu behar izan dugu.

Zorionez, emaitzak ahalegina justifikatzen ari dira, hegazkin-turbinak fabrikatu eta mantentzeko hornitzen dizkiegun ekipoek frogatzen duten bezala, non munduko kuotaren %90 baino gehiago dugun, edo trenaren mantenua guztiz automatizatua egiten dituzten "giltza eskuan" tailerrak, eta gure historian lortu ditugun eskaera-kopuru handienak ekarri dituztenak.



## BTI eta berrikuntza: disrupzioaren eta bilakaeraren batura. **Eduardo Anitua**, BTI Biotechnology Instituteko presidentea eta zuzendari zientifikoa

Ikerkuntzaren barrutian disrupzioa prozesu sarria da. Zientziaren historia paradigmatik errotik aldatu dituzten aurkikuntzaz josita dago, une horretara arte onartzen ziren ideiak erabat desfasaturik geratzea eraginez, eta teoria berriez ordezturik geratzea eraginez, zeinak edozein kasutan, zientzian ia dena bezala, ez baitziren aldaezinak.

BTI enpresa guztiz zientifikoa da, I+G jardueran bizi batean murgildua, zeinek ez dituen onartzen finkatutako dogmak gehiengoak onartuak izate hutsarengatik. Ohiturik gaude berrikuntza disruptiboekin bizi izatera, eta egiaz, aurrerapen bat baino gehiago sortu ere sortu dugu disruptibotzat jot daitezkeenak zientziaren eta osasunaren barrutian.

Balio beza adibide gisa BTI-k garatu eta patentatutako Endoret® hazkuntza-faktoretan aberatsa den plasma-teknologiak, zein izan baita medikuntza birsortzailearen barrutian berrikuntza erabatekoa eta hauslea ekarri duena.

Baina eragiten dugun disrupzioa bere barrutian aurreko guztiak desplazatu dituen teknologia bat garatzeaz harago joan da, izan ere medikuntza birsortzailearen aldeko apustua egitean disruptoreak izan ginen farmakologiaren kontzeptu galenotar eta kimikoa kontzeptu biologiko batez ordeztzean, zein baitzegoen organismoaren beraren baliabide propioak ustiatzen oinarritua (giza gorputzaren "auto-farmazia") patologia desberdinak tratatzeko aukera ematen duten sendagai auto-logoak eragiteko. Era berean, aho-kirurgiaren barrutian erabat berritzaileak izan ziren kirurgia-teknikak garatuz, zeinak oso inbasio gutxikoak ziren eta pazienteari egokitzen zitzaion inplante-sistema bat sortuz, pazienteak inplante-sistemara egokitzera behartu ordez.

Hala eta guztiz ere, garatzen dugun berrikuntza bakoitza etengabeko hobetze eta perfektionatze baten, pixkanakako bilakaera baten mendean dago. Hitz batean, baieztatu genezake BTI estrategia berrikuntzari dagokionez bilakaerazko disrupzio batean oinarritzen dela.

Eredu berritzaileen konbinazio hori da, gure ustez, zientziaren eta biomedikuntzaren barrutian arrakasta-aukera handienak eskaintzen dituen, eta BTIri mundu guztian medikuntza birsortzailean erreferentzia bezala kokatzeko aukera eman diona.

## Nor bere burua berrasmutzen.

**Natalia Fernández**, Las Indiaseko zuzendari nagusia

30. hamarkadan Toyota jaunak erabaki bat hartu zuen: ehungailuak fabrikatzea bertan behera uztea eta estatubatuarren artean sapan zegoen asmakari batean zentratzea: automobila. Familiaren enpresa Toyota bihurtu zuen. Haren obsesioa kontrol- eta kalitate-sistema perfektu bat sortzea zen, eta gainera era atergabean hobekuntzak identifikatu eta integrazeko aukera emango zuena.

Toyotarekin gehikuntza-berrikuntzaren aroa ireki zen. Hausturarik gabe. Jauzirik gabe. Ezustekorik eta originaltasunik gabe.

Baina beste enpresa bat atseginago zaigu. Kartak saltzen zituen 1889tik. Fundatzailearen bilobak Goko jokalaria profesionala izan nahi zuen, -zorroztasunaren eta ezustekoen maitaleak zirentzako jolasa. Baina ez zioten utzi. Enpresa gidatu behar zuen. Arratsaldero langileetako batzuk partida bat jokatzerako gonbidatzen zituen. Taularen intimitatean ideia zoro bat eskatzen zien. Haietako batzuk praktika ezartzen hasi zen: "egia, ausardia, edo musuan" jokatzeako trastetxoetatik hasi eta laserrezko pistoletarainokoak. Izan zuen porrot bat baino gehiago. Haren arrakasten artean nire haurtzaroko eta nerabezaroko unerik hoberenetako batzuk: tetrisa, Mario...

Geure lehen kontratu handiarekin Wii bat erosi genuen. Eta Qol berria salmentara irtetean, bideojokoekin zerikusirik ez duena, lehena izango naiz ilaran. Hori bai, Nintendo Toyotaren fakturazioa gainditu egin zuen jadanik 1991ean.

Zer egin dugu Indietan azkeneko 12 urteetan? Gon 😊 jokatzen ikasi genuen, geurekin bizitzan jokatzen dutenei entzuten ikasi genuen eta ausartzen ikasi genuen eta ibilbidea aldatzen ez bakarrik porroten ondoren, baizik eta askoz garrantzitsuagoa dena, arrakasten ondoren. Hau da, Juan Urrutia gure bazkide fundatzaileak dioenez, "aldaketak suhartzurik bizi izaten" ikasi genuen.



## Konfiantza, lantaldea berritzeko oinarria.

**Borja Saracho**, Crusoe Treasure Beverages-en fundatzailea

Bajoelagua Factory-n agian gure ezaugarria egunerokotasunari aurre egiteko dugun modua da. "Irekian" pentsatzen dugu. Lan egiteko modu hori, gaur egun dagoeneko ohitura dena, kontzeptu disruptibo bat 2008an sortzeko ernamuina izan zen, Crusoe Treasure edariak lantzea itsasoaren sakonean, upategi-arrai artifizial baten barruan.

Init Taldearen barruan txertaturik dagoen, eta Taldearen politikarekiko fidela den gure enpresan, sormena eta berrikuntza sustatzen ditugu, egitura ireki bat sortzean guztiok iritzia eman eta ideien ekarpena egin dezagun. Ezer ez da ezinezko, ezer ez da burutu ezinezkoa. Oso begikoa dudana eta gure bileretan sarri erabiltzen duguna honako hau da: "ahots goraz pentsatzen ari naiz". Horrek gauza bat erakusten du: guztiok ilusioz bete gaitzen, "berotuz" joan gaitzen zer giro sortzeko gai garen erroka berri baten aurrean planteatzen ditugun ideiekin, eta beti emaitza bikainak ematen dituzte azkenerako.

Ideiak sortzeko giroa lan-jardunaldi osoan zehar gertatzen da. Oinarritzkoa da bi premisatetik abiatzea: errespetua eta iritzia emateari, proposatzeari, iradokitzeari... amets egiteari beldurrik ez izatea. Eta hori besteek esango dutenari, lanpostua galtzeari beldurrik ez bazaio bakarrik lortuko dugu. Beldur horiek badira enpresa handietan edo/eta enpresa hierarkizatuetan.

Errespetua giza ekarpenetik (funtsezkoa da lantaldeek giza "kalitate handiko" pertsonak integratzea), partekatuzetik, bakoitzaren lana, ilusioa, komunikazioa ikustetik lortu behar da...gaur egun balore horiek ez dira aurkitzen errazak.



## “Euskal I+G+b Koaderno Estrategikoa European 2014-2020an” aurkeztu da

Ezkerretik eskuinera: Txema Villate, Leyre Bilbao, Arantxa Tapia, Estíbaliz Hernáez, Serafín de la Concha eta Garbiñe Larrauri

la 500 pertsona elkartu ziren joan den ekaineko 18an Bilboko Euskalduna Jauregian, Ostertza 2020, ikerkuntza eta berrikuntzako europar programa berriaren gakoak ezagutzeko, nazioarteko lankidetzaren esparru horretan eskaintzen dituen aukerak, bai eta partaidetzahelburuak ere Euskadirentzat.

“Euskal I+G+b Koaderno Estrategikoa European” Arantxa Tapia, Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasuneko sailburuak inauguratu zuen, eta Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuneko sailburuordearen, Estíbaliz Hernáezen eta Teknologia eta Estrategiako zuzendaria den Leyre Bilbaoren partaidetza ere izan zuen. Gainera, ekitaldian partaide izan ziren honako hauek: Serafín de la Concha, ITGZko EB programen dibisio-burua; Carlos Peña,

ZTBEErentzako Bulkada Arloko zuzendaria eta Garbiñe Larrauri, Proiektuen zuzendaria, biak Innobasquekoak; bai eta UPV/EHUko, teknologia-zentroetako, IZZetako eta euskal enpresetako ordezkariak ere.

“Euskal I+G+b Koaderno Estrategikoa European” Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemaren nazioartekotze-estrategia artikulatzen duen lanabes bat da Horizon2020an parte hartzeko helburu batzuk proposatuz, eta laguntza-zerbitzu batzuk eskainiz helburu horiek betetzeko.

Kolaborazioko lan-prozesu baten emaitza da argitalpena, zeinek konbinatzen dituen dagoeneko European ari diren eragileen esperientzia, eta beren ikerkuntza eta berrikuntzako estrategiak nazioartekotzeko



ahalmena dutenenarekin, eta horri administraritzaren ikuspena gehitzen zaio I+G+b-aren nazioartekotzearen sustapenez eta europar ekimenen ustiapenez. Koaderno Estrategikoa H2020ri buruzko kontsultako gisa praktikoa izan nahi du, eragile guztiak eskaintzen dituen berritasunetara hurbilduko dituen. Hori guztia aukera-gakoan azaldua H2020ko Euskadiko gai-alorretako bakoitzerako eta erakunde mota bakoitzerako (azpistema zientifiko, teknologiko, enpresazko eta sanitarioak).

## Europar programetako euskal partaidetzaren datuak zure eskura

Lankidetzako I+G+b-ko proiektuetan erakunde batek aurrez aurre daukan zailtasunik handienetako bat bazkide egokienak aurkitzea da. Euskadi erreferentziako erregio bat da Europar Batzordeak finantzaturako proiektuetan parte hartzen bere Esparru Programen bitartez, dagoeneko 300 erakunde baino gehiago lanean dituen proiektu mota honetan.

I+G+b-ko dagoeneko nazioarteko barrutian lanean ari diren euskal erakundeak aurkitzen lagundu ahal izateko, Innobasquek, berritasun bezala, I+G+b-ko europar proiektutako euskal partaidetzaren behatokiaren bitartez, proiektu finantzatuaren bilatzaile publiko bat eskaintzen du eta proiektu horien onuradun diren euskal erakundeak.

Zerbitzu berri horrek erraztu egingo du interes komunak dituzten erakundeen arteko kontaktua, halako moldez, non lankidetzari berriak finkatu ahal izango diren etorkizunean. Bilatzaileak aukera ematen du hitz gakoaren bitartez bilaketak egiteko, teknologia-sektoreka, erakunde onuradun motaren arabera, herrialde



historikoen arabera edo proiektu bakoitzaren esleipen-urtearen arabera.

Behatokiak, gainera, beste gune publiko bat eskaintzen du, non Innobasquek intereseko informazioa argitaratuko duen Horizon2020rekin eta Euskadik programa horretan duen partaidetzarekin zerikusia duena.

Bestalde, alor pribatu bat izaten jarraituko du, irispide mugatua duena soilik Europar Batzordeak onartutako proiektuak dituzten erakundeetara.

## "I+G+b-ko nazioarteko proiektuen kudeaketako ikastaro aurreratuaren" edizio berria

25 euskal profesional prestatu dira europar proiektuen kudeatzaile bezala "I+G+b-ko nazioarteko proiektuen kudeaketako hirugarren ikastaro aurreratuaren" edizio berrian

Tecnaliak, IK4 Research Alliancek, Spri Taldeak eta Innobasquek, Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasuneko sailaren lankidetzarekin eta Basque Enterprise Europe Network-en (EEN) babesarekin, ikastaroa garatu zuten 2014ko azken hiru hilabeteetan zehar, 48 eskola-orduko iraupen osoarekin, 8 saiotan banaturik.

Prestakuntza-programa horren helburua pertsona partaideak trebatzea da Horizon2020 programa berria ulertzeko eta beste programa batzuk, nola nazionalak hala erregionalak I+G+b-ri laguntzeko; bultzatu haren enpresaren partaidetza europar I+G+b-ko proiektutan, pixkanaka hobetuz lider izateko eta proposamen berrietan parte hartzeko haren gaitasuna; eta ezagutzak eskuratzea proiektuak prestatzen eta



Parte-hartzaileak ikastaroan

kudeatzen ikuspuntu tekniko eta ekonomikotik.

I+G+b finantzatzeko europar programetan parte hartzeak zuzeneko inpaktua du fakturazioan, pertsonalaren sendotze eta hazkuntzan, bai eta haietan parte hartzen duten erakundearen nazioarteko posizionamenduan. Horretarako, garrantzitsua da estrategia argi bat

definitzea erakundearen barruan eta pertsonal kualifikatua izatea partaidetza-aukerak detektatzeko, proposamenak idatzi eta proiektuak kudeatzeko. Horiek guztiak ikastaroan parte hartu duten 25 partaideek garatu ahal izan dituztenak dira.

## ERA-NET, europar herrialde eta erregioen arteko lankidetzak I+G+b-a nazioartekotzeko

Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkeak ERA-NET 2015 deialdian aurkezpen-jardunaldiari harrera egin zion joan den azaroko 25ean, Innobasquek antolatutako Eusko Jaurlaritzako eta Spri Taldeko Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasunaren sailaren lankidetzarekin.

Euskal Herriko enpresa, teknologia-zentro, unibertsitate, BERC eta IZZetako 120 pertsonak parte hartu zuten europar-mailako topaketan, zeinen helburua euskal erakundeen partaidetza sustatzea den I+G+b-ko lankidetzak-proiektutan, aipaturiko proiektuetan partaidetzako laguntza-zerbitzuak ezagutarazteaz eta enpresei aholku praktikoak bideratzeaz gainera proposamenen arrakastarako.

Jardunaldiaren esparruan ERA-NET deialdiak aurkeztu ziren, 2015ean zehar indarrean egongo direnak: EuroTransBio (bioteknologia), MANUNET II (fabrikatze aurreratua), M-ERA.NET (materialen zientzia eta ingeniariak), ENT III (garraioa), OCEANERANET (energia ozeanikoak) eta SAFERA (segurtasun



ERA-NET 2015 deialdian aurkezpen-jardunaldia

industrialia). Gainera, ERA-NET programetan euskal enpresen partaidetza arrakastatsu eta garrantzitsuen erakusbide bezala, bi kasu praktiko ezagutarazi ziren: Goizper, haustutze, bioteknologia eta industriaren kooperatibataldea, zeinek duen bere I+G+b-ko zentro propioa; eta AJL Ophthalmic, begi barruko inplanteen eta begi barruko kirurgian ezartzeko beste produktu batzuen enpresa.

Nabarmentzekoa da 2006-2013

denboraldian 136 proiektu onartu direla euskal enpresen partaidetzarekin, eta horrek 47 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa ekarri du.

ERA-NET Europar Batzordearen ekimen bat da, zeina bai antzinako VII Programa Esparruan eta bai oraingo Horizon2020an barnebidurik dagoen ikerketaren bikaintasun-mailak gehitzeko xedearekin EBeko erregio eta herrialdeetan, eta I+G-aren nazioartekotzearen helburua lortzeko, batez ere ETEetan.

## Enterprise Europe Network-ek ETEentzat laguntza-zerbitzu berri bat gizarteratu du

Innobasque eta Spri, Enterprise Europe Network-ekoak (EEN) diren erakundeak, lanean hasi dira Europar Batzordeak finantzaturako proiektuen irabazleak diren euskal etekin ETE lanabesaren bitartez.

Ete horien berrikuntza-proiektuen ustiapen arrakastatsu eta errentagarria ziurtatzea Sareak eskaintzen duen laguntza-zerbitzu berriaren helburua da. Hori lortzeko, coach egokienak identifikatu eta lortzen lagunduko dute, enpresa bakoitzaren premien arabera, konektatu egingo dute etea berrikuntza erregional eta nazionalerako bere ekosistemako laguntza-zerbitzu gehigarriekin, eta fase guztietan zehar lagunduak izango dira, ezarritako helburuak eskuratzen direla ziurtatuz.

ETE Lanabesa, zeinek duen 2.800 milioi euroko hornidura bat datozen 7 urteetarako,



Laguntza-zerbitzuaren aurkezpen-jardunaldia. Ezkerretik eskuinera: Jesús de la Fuente, Arturo Antón, Garbiñe Larrauri eta Julián de Juan

Europar Batasunak sortutako ekimen bat da, europar Esparru Programaren barruan Horizon 2020 ikerketa eta berrikuntzarako, nazioarteko merkatuetan beren berrikuntzak ustiatzeko gaitasun handiko eteen presentzia azkartzeko helburuarekin.

ETE Lanabeseko lehen emaitzak positiboak izan dira. Euskadik 4 proiektu lortu ditu bere

finantzaketarako Batzordeak aukeratu dituen 155 proiektuetatik. Espainia da finantzaturako proiektuen kopuru handieneko herrialdea, 39, Erresuma Batua eta Italia darraizkiolarik 26 eta 20 proiektuekin hurrenez hurren.



## ZTBP 2020, Euskadi European ikerkuntza eta berrikuntzako erreferente bezala kokatzeko plan bat

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Kontseilua ZTBP Euskadi 2020 aurkezpenean.  
Argazkia: Irekia

Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Kontseiluko aurretiazko aldeko informazioarekin, joan den abenduaren 16an onartu zuen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plan berria (ZTBP Euskadi 2020), zeinen misioa euskal gizarteko ongizatearen, hazkuntza ekonomiko jasangarriaren eta euskal gizarteko enplegua hobetzea den, ikerkuntza eta berrikuntzako politika baten bitartez espezializazio adimenduneari eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako efizientzia hobetzean oinarritua.

Misio hori lortzeko 4 lerro estrategiko eta jarduerako 2 zehar-ardatz markatu dira. Lerro estrategikoak honako hauek dira: espezializazio adimendunaren estrategia bultzatzea zientzia, teknologia eta berrikuntzaren bitartez Euskadiko erronka sozialei erantzuna emateko; lidergo industrialaren sendotzea lankidetzara publiko eta pribatuaren bitartez; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Sistemaren bitartez bikaintasuna jasotzea; eta giza kapitalaren

garapena bermatzea zientzian, teknologian eta berrikuntzan.

Bestalde, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Sistemaren irekitzea eta nazioartekotzea eta sistema berritzaila eta konektatua, dira jarduerak markatzen bi zehar-ardatzak.

Lerro eta ardatz horiek 6 helburu operatiboren bitartez hedatzen dira: kontzentratu baliabideak eta inbertsioak I+G+b-n espezializazio-barrutietan; oinarritzko ikerkuntza eta garapen esperimentalari indartu; emaitzetara bideratu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Sistema; sendotu nazioarteko funtsak atzemateko I+G+b-n; gehitu berrikuntza egiten duten enpresen kopurua; eta hobetu pertsonal ikertzailearen prestakuntza.

Helburu operatibo definituen lortzea bermatzeko, Plana lanabes-multzotzat hartzen da eta ekintza-politika batzuetan bermatzen da, bai eta ebaluazio eta monitorizazio-sistema integratu batean ere. Hori guztia gobernantza operatiboko eredu batetik ezarria eta lidergo eta ardura-identitate argi batekin, baliabide

publiko eta pribatuaren baterako mobilizazio batekin, zeinek lortuko duten 11.100 milioi euro 2014-2020 denboraldian.

ZTBP Euskadi 2020 lantzea prozesu ireki eta parte-hartzaile baten bitartez burutu da 3 fasetan garatua: Euskadiko RIS3 espezializazio-estrategiaren definizioa fabrikatze aurreratua, energia eta biozientziak/osasunaren fokuarekin; Plan berriaren oinarritzko printzipioen formulazioa; eta dokumentuaren lantze, kontraste eta balidatzea nola barne-eragileekin hala kanpokoekin, haien artean delarik ZTBEKeko Batzorde Zientifiko Aholkularia, Europar Batzordea eta HELGE.

Prozesu honetan funtsezko zeregina izan du Lan Operatiboko Taldeak, Lehendakartzak koordinaturik, eta Eusko Jaurlaritzako lau sailek eraturik (Ogasuna eta Finantza, Ekonomia Garapena eta Lehiakortasuna, Osasuna, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura), Ikerbasque, Orkestra, Bioef eta Innobasque. Azken horrek, gainera, idazkaritza teknikoko lana garatu du, Planaren testuaren azken lantzea egiteaz arduratu delarik eta horretarako Lan Taldearen lankidetzara izan da.

## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen berrantolaketa: Euskadiko industria-birjaiotza

Ekainaren 4an egindako ekitaldi publikoan, Innobasqueko Batzar Nagusiaren jarraipen bezala, Arantxa Tapia, Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak, Eusko Jaurlaritzak diseinatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen Berrantolaketa gakoak aurkeztu zituen, Sarea eratzen duten eragileek batera egindako lan baten ondoren, Spiren partaidetzarekin eta Innobasqueren lankidetzarekin. Proiektuaren helburua ZTBES merkatura gehiago hurbiltzea da eta enpresa eta gizarterako emaitza hobek lortzea.

Sarearen diseinu berriak lehenasuna emango dio teknologia-garapenari inbertsio pribatua handiagoa erakartzeko, bere jardura espezializazio adimendun definitutako arloetan (fabrikatze aurreratua, energia, biozientziak eta osasuna) kontzentratuko du bere jardura eta emaitzak neurtu egingo ditu eragile bakoitzak bere eginbeharra betetzen duela bermatzeko.



Arantxa Tapia

Hori guztia Euskadi erreferentziako erregio bihurtzeko asmoz Europan teknologiaren barrutian. Horretarako, beharrezkoa da ezagutza-transferentzia gehitzea industriari, eta Sareko eragileen jardura eragitea

enpresei eta eteei itsatsiagoo, eta oraindik teknologia-garapenera bideratuagoo. Horrela, ZTBESeko eragileak funtsezko aktoreak izango dira Euskadiko industria-birjaiotza berrian.

## Gobernantza eta hiritarren partaidetza-eredu berri baterantz

Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailburu den Josu Erkorekak joan den abenduko 19an aurkeztu zuen "Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko liburu zuria", Bilbon, Euskadiko Artxibo Historikoan 100 pertsona baino gehiagoren aurrean.

Eusko Jaurlaritzak sustatutako ekimen bat da Innobasqueren aholkularitza eta laguntza metodologikoarekin, zeinean jasotzen diren gobernanzako eredu berri bat finkatzeko printzipioak, eredu horretarantz aurrera egiteko aldaketak eta ekintzak, bai eta hedapen eta jarraipeneko konpromisoak ere. Hau da, argitalpen teoriko eta kontzeptual bat, baina bertan begiesten diren ekimententzat neurri eta ekintza zehatzak dituen ere bai, baloreak printzipioak eta kontzeptu partekatuek barnebilduz ekintzara bideratutako konpromisoekin. Abiapuntu hori aberastuz eta zabalduz joango da gizarteratu den une beretik.

Liburu Zuri hori, herri-gaietan Euskadi



Ezkerretik eskuinera: Luis Petrikorena, Luiz de Mello, Josu Erkoreka eta Alberto García-Erauzkin  
Argazkia: Irekia

parte-hartzaileago bat eraikitzeke helburuarekin landua, ia urtebetez garatu zen lankidetzaren prozesu baten emaitza da, eta zeinean 500 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten beren esperientzia eta ezagutzaren ekarpena egiteko interesatuak.

Horretarako, hiru jardunaldi ireki burutu ziren, zeinetan eragile adituak, erakundeak eta gizarte zibil antolatua lankide izan ziren edukiak garatu eta prozesuaren faseak diseinatzeko. Bestalde, dozena bat prozesu

espezifikoko abian jarri ziren kolektibo garrantzitsu batzuekin eredu parte-hartzaile barne-hartzaile batean aurrera egiteko, ikuspenak eta ñabardurak batuz. Gainera, gida eta gardentasun-berme bezala, kontraste-talde bat eratu zen, partaidetza-barrutiko ikuspen desberdinen ordezkapen-batzorde bat zena, zeinen eginkizuna administrazioan orientatu eta gomendioak egitea izan zen.






## Euskadi aitzindaria XXI. mendeko justiziako profesionalen prestakuntzan

Lankidetzazuzenbidearen ezarpenak profesional-mota berri bat eskatzen du "justizia bekaletzailetik" "akordiozko justiziarako" iragatea bideratzeko gai izango direnak, horretarako gatazken konponbiderako hautazko metodo berritzaile, lankidetzazko eta lagunkoi bat erabiliz. Babes juridikoa eta justizia ulertzeko era berri bat printzipio eta balore batzuetatik.

Ilido horretatik, Euskadiko Lankidetzazuzenbidearen Elkartek, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren eta Innobasqueren laguntzarekin, 2014an zehar lankidetzazuzenbidea eratzeko profesionalen prestakuntza-ekintza bat baino gehiago antolatu zituen.

la 200 pertsonen parte hartu zuten 2 jardunaldi berri-ematez gainera, prestakuntza espezifikoko bi ikastaro antolatu ziren: "Harvard Negoziazio Metodoa" eta "Lankidetzazuzenbidea" eta beraien 250 profesional baino gehiagok parte hartu zuten.



Lankidetzazuzenbidea ikastaroa Gasteizen (Artium, 2014ko iraila)  
Argazkia: Euskadiko Lankidetzazuzenbidearen Elkartea

Ikastaro horiek, zeinetan parte hartu baitzuten Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Madrileko Abokatuen Elkargok, gai horretako profesional ospetsuek emanak izan ziren, zeinen artean Paul Faxon, Susan Miller, eta Lina Cohan baitzeuden International Academy of Collaborative Professionals-eko (IACP) bazkideak; Neil Denny, IACP-eko elkarte amerikarrekoko ohiko prestatazailea eta Christian Lamm, bitartekaritza eta negoziazioen

esperientzia luzea duena.

Lankidetzazuzenbidea gatazka konpontzeko metodo berritzaile bat da, elkarrizketa, lankidetzaz, formalismorik ezaren eta elkar ulertzearen bitartez akordio sendoak eraiki nahi dituen, eta askotan sortzaileak, gatazkan dauden aldeek onartzen dituztenak, aldean arteko harremanak berreraiki edo jarraitzea ahalbidetuz, gainera, haien arteko lokarria erabat eten ordez.

## Innobasque Gizarte Berrikuntzako Espainiar Sareko bazkidea

Málaga Aldundia, Administrazio Publiko Nazionala (APIN), Juan Carlos Errege Unibertsitatea, Móstolesko Udala, A Coruña Unibertsitateko Gizarte Erantzukizuneko Inditex katedra, Sinergiak Social Innovation eta Innobasque izan ziren Gizarte Berrikuntzako Espainiar Sarea (GBES) ofizialki eratzeko parte hartu zuten erakundeetako batzuk.

Sare hori, gizarte-berrikuntza aztertu, aurreratu eta ezartzearen erreferente nazional eta nazioarteko izateko helburuarekin jaio dena, espainiar hiri nagusietan gizarte-berrikuntzako mapa bat egitea du lehen egitekoetako bat.

Argazkia: La Noria, Málaga, 2014ko urriak 22



Gizarte Berrikuntzako Espainiar Sarearen lehen topaketa



Parte hartzaileak European Social Innovation Competition-en. Argazkia: Lehendakari Agirre Center

## European Social Innovation Competition, enplegua sortzen duen gizarte-berrikuntza

Europa guztiko ekintzaile sozialek parte hartu zuten martxoaren 3tik 5era Bilbon European Social Innovation Competition-en bigarren edizioan. Europar Batzordeak antolatutako topaketa hori enplegua sortzeko irtenbide hobereen bilatzea, ekintzaile sozial berritzaileko proposamenen bitartez.

1.254 izan ziren Milanen (Italia) lehiaketara aurkeztutako proposamenak, eta haietatik 30 erdi-finalista bezala sailkatuak izan ziren zenbait mentoring-saiotan zehar Bilbon aberastuak izateko. Saio horiek mentore-lantalde batek eman zituen, nola ekintzaile eta gizarte-berrikuntzako tokikoek hala nazioarteko zenbait erakundeetakoek, hala nola Nesta britainiar berrikuntza agentzia, The Young Foundation, edo Euclid Network.

Bilbon egindako fasean aberastutako proiektu guztien artean, zeinek kontuan hartu zituen Lehendakari Agirre Center eta Basque Social Innovation tokiko bazkide bezala, eta Londresko errondaren ostean, epaimahaiak 10 proposamen finalista hautatu zituen, haien berrikuntza-maila, inpaktu-ahalmen eta jasagarritasunaren eta eskalagarritasunaren arabera

Azkenik, maiatzaren 20an izan zen Bruselan sarien banaketa-zeremonia, eta bertan 3 irabazleetako bakoitzak 30.000 euro jaso zituen bere ideia abian jartzeko.

Proiektu irabazle horietako bat From waste to now! QUID project (Italia) izan zen. Marka handien ekoizpen-prozesuetan arbuizten diren materialak birziklatzeko ekimen bat da, QUID, marka berri baten lehengai bezala haiek erabiltzeko, diseinatzaile gazteentzat eta egoera defaboratuan emakume-kolektiboentzat lanpostuak sortuko dituen.

Bigarren proiektu saritua Urban Farm Lease (Belgika) izan zen Bruselan hiri-nekazaritza bultzatzeko eta guneen jabeak, nekazari berriak eta kontsumitzaileak konektatuko dituen plataforma bat sortzeko. Helburua zuzeneko 3.000 lanpostu eta zeharkako 1.500 sortzea da.

Voidstarter (Irlanda) proiektua ere irabazle izan zen, zeinek proposatzen duen Dublingo eraikin hutsak enplegurik gabeko pertsonak prestatzeko aldi baterako gune bezala erabiltzea haiek birgaitzen ikas dezaten profesional esperimintatuekin batera. Gerora eraikin horiek etxebizitza sozial bezala erabil litezke, co-working gune edo aldi baterako denda bezala baliabide gutxiko gazte ekintzaileentzat.

## Katilu, berrikuntza eta lankidetzaren bultzatzaile gisa nekazaritzako elikagaien sektorean eta landa- eta itsasertz- ingurumenaren

Katilu Gunea Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren lanabes bat da Innobasque, Azti-Tecnalia, eta Erika, Hazi eta Neiker-Tecnalia enpresa publikoekin. Horien eginkizuna berrikuntza eta lankidetzaren bultzatzea da nekazaritzako elikagaien sektorean eta landa- eta itsasertz-ingurumenaren. Horretarako, Katiluk mesede egiten die berrikuntza eta lankidetzako ideien eta proiektuen garapeneri, nola sektore bereko eragileengandik sortutakoek ("bottom-up" ekimenak), hala Sailburuordetzatik, sistema bideratzaileak eta I+G+b sistematik sustatutako proiektuei ("top-down" ekimenak).

Hain zuzen ere, "top-down" ekimenen esparruan, Katilu Guneako lantaldeetako batek 2014an zehar lan egin zuen Berrikuntza eta Lankidetzako Estrategia Bizia diseinatu eta lantzen (EBBL). Nekazaritzako elikagaien ekosistemako maila desberdinetako berrikuntza eta lankidetzaren begiesten duen estrategia bat; berrikuntza eta lankidetzako kulturari bultzatzea; eta elikadura fokapen globala bezala balio-kate osoa kontuan izanez, elikagaien industriaz harago.

Estrategia Bizia hedatzeko, lanabes finantzarioekin era osagarrian, Berrikuntza eta Lankidetzako Plan Bizia 2015-2016 (PBBL) diseinatu da. Sailburuordetzak 2015. urtean zehar PBBL 3 lanabesen bitartez bultzatuko du: Berrikuntzako Brokerra "bottom-up" berrikuntza eta lankidetzaren bideratzeko; Berrikuntza eta Lankidetzako Mandatuen Bateria "top-down" berrikuntza eta lankidetzaren bideratzeko; lantaldeei eta izaera estrategikoko proiektuei euskarria emanez; eta Berrikuntzako Aukeren Antena garatuz EAEn ideiak, joerak edo planteamendu berritzaileak identifikatu eta transferitzeko, zeinak berrikuntzako proiektu eralda daitezkeen, bai Sailburuordetzarentzat berarentzat eta bai sektoreko eta ingurumeneko eragileentzat.

**katilu**  
ideiak beltzen diren tokia  
donde las ideas maduran



## Euskadi eta Gales berrikuntza-sare bat sortzeko elkartu dira

Bizkaia Aretan egindako Jardunaldiak. Argazkia: Lehendakari Agirre Center

12 Network da Euskadi eta Galesen artean lankidetzako enpresa-, erakunde- eta ikerketa-lankidetzako proiektuak garatzeko eraturako berrikuntza-sare berria, eta honako erakundeek eraturik dago: Eusko Jaurlaritzak, Galesko Gobernua, Nesta, Cardiff University, Euskampus, Orkestra, Tecnalía, IK4 Research Alliance, BIC Innovation, Euskaltel, SC4, Urbegi Taldea, WAF, Schaffler, Prosumerlab eta Innobasque.

Sarea joan den irailan eratu zen Agirre Lehendakari Center-ek antolatutako jardunaldi batzuen esparruan UPV/EHUarekiko lankidetzan eta bertan Galesko erakunde, enpresa eta ikerketa-zentroen ordezkariak bat iritsi baitzen Euskadira lankidetzak guneak identifikatzeko helburuarekin honako eremuetan: berrikuntza-politika, espezializazio adimendun, Horizon 2020, Big Data,

automobilaren industria eta ikus-entzunezko produktuak.

Topaketa abiapuntu izan zen Eusko Jaurlaritzak eta Innobasqueren aldetik, lehen lan-zirriborro bat lantzeko bi erregioen artean lankidetzako proiektuak proposatzeko, Eusko Jaurlaritzak-Innobasque eta Galesko Gobernua-Nesta direlarik identifikatutako proiektuen hedapena etorkizuneko koordinatzearen arduradunak.

## Innobasque, Social Gizarte-berrikuntzako Lidergoari Sari Asiarra

World CSR Congress eta Asian Confederation of Businesses-ek Innobasqueren lana aitortzen dute honako kategorian honetan: "Gizarte Berrikuntzako Lidergoa" Asian Leadership Awards-etan, izaera desberdineko 1.000 eragile baino gehiago mobilizatu eta inplikatzen izan duen trebetasunarengatik herrialderako arloa gakoetan gizarte-berrikuntza sustatzen". Horregatik, Innobasquek bi sari jaso zituen: "herri-politikak eraikitzen laguntzaren ekimen hoberenaren" saria eta "gizartearen mobilizaziorako ekimen hoberenaren" saria. Dubai (Emirri Arabiar Batuak), 2014ko irailak 25



Ezkerretik eskuinera: R.L. Bathia, Rahul Kanodia eta Gotzon Bernaola. Argazkia: Asian Leadership Awards

5

gako ....

# MERKATARITZAREN BERRIKUNTZARAKO



Juan Mendizabal,  
Foto Ikatz

1

**Ez muntatu negozio bat (aisiaren ukapena) dirua irabazteko bakarrik,** baizik eta bizirik eta pozik sentiaraziko zaituen proiektu bat. Proiektu propio bat motibatu, gogoberotu eta egunero lan egitera animatuko zaituena. Eta aldi berean zure lantaldea motibatuko duena. Emaidza ekonomikoak gauza horien guztien ondorioa da.

2

**Adimena zabalik izan eta ikasteko gogoia.** Umila izan eta besteengandik ikasi. Oreka ezazu zeure bizitza profesionala eta pertsonala.

3

**Ezagutzak lortzea garrantzitsua da, baina zuzen ezarri eta kudeatzea oinarrizkoa da.**

Prestakuntza etengabea izan behar da eta erne egon behar da edozein berritasunen aurrean. Liderrek bideak markatzen dituzte, adi egon behar da haien pausoetara.

4

**Ingura ezazu zeure burua lantalde on batez eta izan ezazu konfiantza harengan.** Enpresaburua ez da gehien dakiena, hazteko eskuordetzen dakiena da eta une gakoetan arriskatzen dakiena.

5

**Merkatari izateaz harro egon.** Ez hitz egin inoiz txikiez edo handiez. Enpresak kudeatzen ditugun enpresaburuak gara eta aldea ongi edo gaizki gidatzearen baitan dago. Ez izan beldurrik porrotari. Beldurrak lotu egiten du erabakiak hartzeko.

## Gizarte ekintzaitzaren aldeko apustua egiten

Innobasquek epaimahai bezala parte hartu zuen Up Socialek sustatutako "Social Innovation for Communities" ekimenean dagoeneko probaturiko eredu jasangarri eta eraginkorren ezarpena bultzatzeko helburuarekin, zeinak beste testuinguru batzuetara egokitu daitezkeen garuko gizarte-eskariei konponbideen ekarpena egiteko.

UpSocialek 10 erronka identifikatu zituen, konponbide berritzaileen bilaketa gidatu zutenak, nola



Espainian hala munduaren gainerakoan. Erronka horietako bat hau da: "Nola sortu lanpostuak gazte eta kolektibo ahulentzat ekonomia berdean?" eta horretan Innobasque lankide izan zen arrakastaz ezarriak izateko ahalmen handiena duten 3 berritasun hautatzerakoan, arkezitutako 25en artean.

Ekimen horrek honako abiapuntua du: inpaktu soziala duten ekimenei bizkortu egiten dutela aldaketa-prozesua, optimizatu egiten dituztela dauden baliabideak eta gehitu egiten dituztela arrakasta-aukerak. Izan ere, arazo baten aurrean dagoeneko konponbide osoa edo zatikoa aurkitu duenaren ezagutza eta esperientziak baliatzeko aukera ematen dute, horrela gizarte I+G+b kostuak murriztuz.



Ekintzaitza soziala babesteko ildo horretatik beretik, Innobasque UnLtd. Spain-ek antolatutako "Gamechangers 2014" sariaren epaimahaiaren osagai ere izan zen JP Morgan Chase Foundation-en babesarekin.



Sarien bitartez gizarte-ekintzaitzako ekimenak bilatzen dira, ideia aurreratuko edo proiektu hasiberriaren fasean daudenak. 15 izan ziren ekimen hautatuak eta horiei prestakuntza, banan-banako aholkularitza, 5.000 €tarainoko kapital haziko baliabideak hornitu zitzaizkien eta gamechanging-a babesten interesatutako exekutibo- eta filantropo-sare baterako irispidea.

## Enpresa Erantzukizun Sozialeko euskal Estrategia amaitu da

EESko b-Taldeak, Innobasquek dinamizaturik, dokumentu estrategiko bat garatu zuen joan den urtean Euskadiko Erantzukizun Sozialeko sustapenez.

Lan hori burutzeko oso garrantzitsua izan zen euskal enpresa-errealitatera egokitzea, zeinen ezaugarria enpresa txiki eta ertainean nagusitasuna den, eredu kooperatiboaren presentzia indartsuarekin eta kudeaketa bikaintasunezko ibilbidea duena, EAE nazioartean erreferente bihurtu duena. Beraz, euskal enpresaren testuingurutik abiatuz eta EES gaian egin duen ibilbidetik, "Enpresa

Erantzukizun Sozialeko euskal Estrategiak" agertoki bat proposatzen du gure inguruan enpresa-erantzukizunaren bulkada partekatuari mesede egiteko, eta horretarako barruti horretan eginkizun esanguratsua duten aktoreak hartzen ditu kontuan.

Lana, uztailean amaitua, lankidetzaren eredu garatu zen 30 eragile publiko, pribatu, heziketa-sistemako eta gizarte zibilaren ordezkari baino gehiagorekin. Horretarako, "bottom-up" lantze-prozesu bat jarraitu zen, zeinean izan zuten eragiteko aukera enpresek jasangarritasunaren eta giza garapen



inklusiboaren ekarpena egitea bideratzeko erronkarekin konprometituz zeuden EAEko erakunde guztiek.

## Euskal enpresek dagoeneko badute giza eskubideak ebaluatzeko lanabesa

Innobasquek, The Rights Factory-rekin lankidetzan, 2013an auditoretza- eta giza eskubideen ebaluazio-lanabes bat landu zuen Euskadiko energiaren sektoreko hornitze-katean. Horretarako, sektoreko 5 enpresaren partaidetza izan zuen: Artech, Gamesa, Ingeteam, Ondoan eta Velatia.

Lanabes hori "Berrikuntza eta giza eskubideak euskal energiaren sektoreko hornitze-katean" proiektuaren esparruan garatu zen, zein bigarren fasean aurkitzen den, zeinen xedea diseinatutako lanabesak sozializatzea den eragile publikoen eta pribatuen soslai jakin baten artean interesa eragiteko, enpresak horiek erabiltzera adoretuz eta barruti horretan ekintza kolektiboa sustatuz.

Helburu horrek adostasunean, joan den irailko 26an jardunaldi bat egin zen eta bertan lanabesa ezagutarazi eta euskal enpresa



guztien eskura ezarri zen, zeinak kezkatuak dauden beren jarduerak eragindako giza eskubideen urratze-arrisku errealek detektatzea.



Nahiz eta edozein enpresak erabil dezakeen, lanabesa bereziki zuzendurik dago

nazioarteko enpresetara, zeinek garatzen dituzten beren jarduerak arrisku ertain eta altuko testuinguruetan eta/edo testuinguru horietan diharduten hornitzaileak dituzten.

## Sektore arteko lankidetzak, euskal manufaktura aurreratuaren erronkei erantzuteko eredu berri bat

CIE Automotive Fundiciones Garbi, Aceros Olarra, Cementos Rezola, Smurfit Kappa, Tubacex, Arcelor Mittal, Repsol eta Vicrila, dagozkien sektoreetan erreferentziako enpresa direnek beren indarrak elkartu dituzte bakoitzak bere industria-prozesuetan disipatutako beroa atzeman, biltegiratu eta berrerabiltzearen arazoari konponbideak bilatzeko.

Nahiz eta forja, galdaketa, metalurgia, zementua, papera, hodiak, siderurgia, finketa edo beira bezain sektore desberdinetatik datozen, 9 enpresa hauek erronka komun bat identifikatu dute beren lehiakortasuna erasaten duena: industria-garapen intentsiboak garatzen dituzte energia-kontsumoan eta hondar-beroa sortzen dute azken produktuak lantzeko beharrezko eraldaketatik datorrena.

Horrek "Hondar-beroa berrerabilpena industria-prozesuetan" sektore arteko proiektuan lankide izatera eraman ditu, zein garatzen den "Advanced & Clean Manufacturing" programaren esparruan



garatzen den, Innobasque, CIC marGUNE, EVE eta Ilobek bultzatuta, eragile dinamizatzaile eta euskarrizko bezala.

Programa horrek helburu bat du: Euskadiko industria-enpresen gaitasun lehiakorra hobetzea eta negozio- eta industria-enpleguko aukera berriak eragitea, eredu berritzaileen ezarpenaren bitartez, zeinek sustatuko duten eragile-mota desberdinen arteko lankidetzak.

Ildo horretatik, eskariaren aldetik erronka eta balio-kateko kate-maila bakoitzean I+G+b beharrik identifikatu ondoren, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemako eragileen artean konponbideen ekarpena egiteko gaitasuna dutenak identifikatu dira. Horien artean daude CIC energiGUNE, Tecnalia eta IK4, zehazki Azterlan, Ikerlan eta Tekniker zentroekin parte hartuz.

## Banco Popular lankidetzan iNNvest sarearekin

iNNvest eta Banco Popular-ek joan den urriaren 7an, Innobasqueren egoitzan, lankidetzakordio bat izenpetu zuten, zeinen bitartez erakunde finantzarioak babestuko dituen Sarera beren proiektuak aurkeztuko dituzten ekintzaileak, haien eskura neurritik diseinatutako produktuen eskaintza zabala ezarri.

Hartara, Cleantech iNNvest-ek indarrak batzen jarraitzen du bere eragile lankideen sarera, zeini Banco Popularrez gainera business angels Hazi + eta Hub Group, aholkularitza estrategiko eta finantzarioan espezialista dena ere erantsi zaizkion. Eragile lankide horiek osatu egiten dituzte Sarean inbertitzeko gaitasunak, ezagutza-euskarria, teknologia, ekintzailetza, finantzaketa eta nazioartekotzearen gaitan.

iNNvest sarea inbertitzaile-sare bat da, ekintzaile inbertitzaileei, gaur egun teknologia garbietetan, beren proiektuen arrakastarako beharrezko baliabideetara iristeko aukera eskaintzen diena.

Sarea gaur egun 15 bazkide fundatzailek eratzen dute eta horien artean daude honako



Ezkerretik eskuinera: Angel Escudero Vara eta Txema Villate

hauek: CAF, Caixa Capital Risk, Demeter, Gestamp, Euskal Herriko Arrisku Kapitalaren Kudeaketa, Iberdrola, Ibermática, IK4 Research

Alliance, Irizar, Mondragon Korporazioa, Orza, Repsol Energia Berriak, Seed Capital Bizkaia, Talde eta Tecnalia Ventures.

## Elikadura osasungarria ordu-arTEan ere

Vending makinei produktu osasungarrien eransketa sustatzea, horrela euskal gizartearen elikadura osasungarria sustatzeari lagunduz, hori da Innobasquek abian jarri duen proiektu berriaren helburua.

"Elikadura osasungarriko vending-a" sektorearen bai eskaintzari eta bai eskabideari zuzenduriko ekintzak kontuan hartzen dituen ekimena da. Alde batetik vending makinetan osasungarritzat jotzen diren produktuak eskura izatea sustatzeko ekintzak, eta bestetik, ordu tarteetan irensten diren elikagaien hautapen osasungarri bat burutzearen garrantzia kontsumitzaileari kontzientziatzeko. Ildo horretatik, honako hau planteatzen da: makinetako produktuen %50 gutxienez osasungarritzat jotzea, NAOS (Nutrizio-Jarduera Fisiko eta Obesitatearen Prebentziorako) Estrategiaren nutrizio-irizpideen arabera.

Vending sistema osasungarriagoen ezarpena bideratzeko Innobasquek hiru gida praktikoko sortu ditu informazio baliagarriekin vendingeko operatzaileei, erakunde pribatuei, eta lehiaketa publikoen



bidez vending-makinen ustiapena izapidetzen duten administraritzeari zuzenduak.

Gainera, talde erakarle bat sortu da, 6 erakunde osatua: Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea, Getxo Kirolak, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta Mercedes Benz, zeinekin lan egingo duen Innobasquek 2015ean aholkularitza eta

laguntza bideratuz vending osasungarriaren ezarpenean, bai eta proiektuaren emaitzen ebaluazioan ere. Horretara, erakunde horiek proiektu berritzaile baten erreferente bezala kokatuko dira elikadura osasungarriaren barrutian, ingurune osasungarrien sustatzaile eta pertsonen osasunaren eta ongizatearen arduradun bezala.





## Adimen Emozionalaren Partzuergoa elkarte bezala eratu da

Proiektua dagoeneko sendoturik dagoelarik, eta Innobasquek 7 urtez haren bultzatzaile, koordinatzaile eta dinamizatzaile rola burutu duelarik Adimen Emozionalako Partzuergoa (AEP) irabazi-asmorik gabeko elkarte bezala eratu zen joan den 2014ko martxoaren 28an.

Mugarri horrek gauzak egiteko era berri baten hasiera markatu du, zeinean AEPa lankidetzaz-lidergo eta elkarlaneko formula

berriak hedatzen ari den eta horrenbestez, bere ahalmen guztia, bere pertsonen eta erakundeena, bere asmoak lortzeko.

Eta berri horretan, Innobasque AEPko beste osagai bat izatera pasatu da, gure estrategiarekin lerrotutako ekimenetan parte hartuz eta rol desberdinak bereganatuz. Era horretara, Partzuergoaren lidergoa, koordinazioa eta dinamizazioa AEParen Lantalde Erakarlearen eskuetan geratu da.

## “Eko-berrikuntzako gaikako azterlana” aurkezten da

“Eko-berrikuntzako gaikako azterlana” eko-berrikuntzako, erakunde eko-berritzaileen esperientzia praktikoen faktore determinatzaileen esparru kontzeptual eta teorikoa, bai eta aztertutako esperientzien emaitzak eta ondorioak jasotzen dituen argitalpena bukatu da.

UPV/EHU eta Deustuko Unibertsitateko 17 ikertzaileko lantaldeak parte hartu du proiektuan eta bertan Euskadiko esperientzia eko-berritzaileen 6 kasu aztertu dira: A&B Bioteknologiaren Laborategiak; Eroski; CIE - Eusko Jaurlaritza - Ekonor; Idom - ACXT; Gasteizko Udala - CEA; eta ZIV Ezarpenak eta Teknologia.



## iNNvest sarea epaimahaikide Cleantech Summit 2015ean

Tech Tour eta International Venture Club-ek iNNvest sarea gonbidatu zuten Teknologia berrien barrutiko proiektu berritzaileak hautatzeko lehiaketako epaimahaian parte hartzera, zein 2014ko azaroaren 20 eta 21 egunetan burutu zen Cleantech Summit esparruan Rotterdameko hiri holandarrean.

Iberdrola eta Innobasque, iNNvest sareko ordezkari bezala, nazioarteko epaimahaiko beste 45 kiderekin batera, hazkuntza (growth) eta hasierako etapako (early) konpainietako ekintzaileek 6 minutuko eskuhartze laburretan aurkeztu zituzten 56 proiektuetako batzuk ebaluatzeaz arduratu ziren erakundeak dira.

Summittean egon ziren bitartean, iNNvest sareko ordezkariak izan zuten “one2one” topaketak egiteko aukera ekintzaile desberdinekin, eta horrek aukera eman zien ezagutzeko euskal erakundeekin presentzia eta kontaktuak izateko zuten interesa.



Ezkerretik eskuinera: Harold Wiener, Ana Belén Gallego, Carolina Rubio eta Luis Manero



## Crowdsasunaren bigarren edizioak berrikuntzako 5 proiektu berri bultzatzen ditu osasunean

Haurtxoak monitorizatzeko kit bat (BabyDuino); errehabilitazio fisiko eta emozionala paddleboard, yoga eta natura konbinatuz (Goazen up); mendekoentzat txakurrekiko laguntza (Tanttaka Lagunduz); ongizate-zapatak 3Dan inprimatuak (The Open Shoes); eta ablazioaren aurkako kanpaina bat Euskadin bizi diren neskato afrikarren (Bidaia bat konpromisoarekin), izan ziren 5 proiektu hautatuak, aurkeztutako 17ren artean, Crowdosasunaren bigarren edizioan.

Crowdfunding ekimen honek, Innobasquek sustatua, GoteoEuskadi plataformaren bitartez, "La Caixa" Gizarte Ekintzarekin lankidetzan, honako helburu hau du: Euskadiko osasunaren eta bizitza osasungariaren alorrean ekimen berritzaileak proposatu, sustatu eta kolektiboki finantzatzea.

80 eguneko kanpainak, finantzaketa kolektiboko 2 errondak, 400 inbertsiokide baino gehiagok eta La Caixaren 12.000 euroko Kapital Erregarioko poltsaren ekarpenak izan ziren guztira 33.949 € biltzea ahalbidetu zutena hautatutako 5 proiektuak gizarteratzeko..



Babyduino



Goazen up



The Open Shoes



Tanttaka Lagunduz



Bidaia bat konpromisoarekin



Innobasque eta Aclima indarrak batzen ingurumen-barrutian berrikuntza egiteko

**innobasque**  
berrikuntzaren euskal agentzia    agencia vasca de la innovación

**Aclima**  
ASOCIACIÓN CLUSTER DE INDUSTRIAS DE MEDIO AMBIENTE DE EUSKADI

Uraren sektorea; ekintzaitza eta negozio eta inbertsio berrien garapena ingurumen-merkatuan; irtenbide berritzaileak hiri eta lurralde jasangarrietarako; eta ekonomia zirkularra dira barrutietako batzuk, zeinetan Innobasque eta Aclima batera arituko diren proiektu zehatzen bitartez, bi erakundeek izenpetutako lankidetzak akordioaren arabera. Proiektu horietan parte hartzeko nahikoa da konponbide berritzaileak izatea eta bi erakundeetako edozeinek harremanetan jartzea.



Gosasun zigilurekin aitortza jaso zuten erakundeetako ordezkariak

## 8 euskal ekimenek Gosasun zigilua jaso dute

Gastronomía Baska, Urkide Ikastetxea, Eskoriatzako Udala eta Mondragon Unibertsitatea, Ausolan, Askora, fisioterapiaonline.com, IES UNI Eibar-Ermua eta Esklerosi Anizkunaren Fundazioa Forum Sportekin batera jaso zuten joan den ekainaren 19an Gosasun zigilua, Euskadin bizi-ohitura osasungarriak sustatzearen konpromisoa aitortuz elikaduran, jarduera fisikoan eta osasun emozionalean.

Zigilu horrek erakusgai duten jardueri, eta sustatzen dituzten eragileei, aitortza eta zabalkundearen ekarpena egiten die Innobasqueren eta Gosasun sarea eratzen duten 112 eragileen aldetik.



### Zigilua jaso zuten ekimenak honako hauek dira:

#### - Zaindu zaitez eta sano jan

Gastronomía Baskak Zaindu Zaitez on-line magazinea sortu du, elikaduraz eta osasunaz gaur eguneko informazioa eskaintzen duena, bai eta elkarrizketak eta artikulua ere jasangarritasunaren eta tokiko baloreen ikuspuntutik.

#### - Atsedendiaz gozaten

Urkide Ikastetxearen ekimen honek txikitatik jarduera fisikoa burutzen duten ikaskideei pizgarria ematen die. Jolas-orduan hamar gune desberdin proposatzen dituzte, zeinetan ikasleek askotariko jarduerak burutzen dituzten eta, gainera, ikasgela eta heziketa-maila desberdinetako ikasleen arteko harremanari mesede eginez.

#### - Fisioterapia-bideok

fisioterapia-online.com webgune bat da, osasun-arazoak auto-kudeatzeko lanabesez erabiltzaileak hornitzen dituena, batez ere, bizkarreko minei eta gihar eta eskeletoko arazoei dagokienez.

#### - Bai dibertigarria ogia jatea!

The Loaf-eko maisu okinekin eta Gipuzkoako Ostalaritza Goi Eskolarekin lankidetzan, haurrek hamaiketako osasungarri baten eta egunero ogi-zati bat jatearen garrantzia aurkitzen dute. Kanpaina hori Askorak antolatua da.

#### - Mugi zaitez zeure osasunaren alde

IES UNI Eibar-Ermuko 1.000 ikasle eta ehunka irakasle batzuek parte hartu zuten eskola-martxa, sedentarismoa gutxitu eta bizi-estilo aktiboak indartzeko.

#### - Ausodiber Heziketa Proiektua

1500 ikasle baino gehiagoko irismena duten 24 Hezkuntza Zentrok Ausolan-ek antolatutako Ausodiber Heziketa Proiektua Heziketa Proiektuan parte hartu zuten, bizitza-ohitura osasuntsuekin harremana duten aisia-aukera desberdinak indartzeko, errespetu edo tolerantzia balioak sustatu edo inguruaren eta baliabideen erabilera jarrera positiboak sendotzeko.

#### - Eskoriatzako II Osasun Astea

Hasi nordic walking, badminton, dantza edo barre-terapiatik eta gosari osasungarrien banaketaraino edo asteroko menua antolatzeari buruzko informaziorainokoak izan ziren Eskoriatzako Udalak eta Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuak antolatzen duten "Osasun Astearen" bigarren edizioaren jardueretako batzuk.

#### - Kosta Trail

Forum Sport eta Esklerosi Anizkunaren Euskal Fundazioak antolatuturik, menditik itsas mailarainoko lasterketa horrek 4.000 pertsona baino gehiago bildu zituen ongintza-helburua zuen kirol-gertaldi batean.

# sarean

## Plataforma logistiko bakarra Europan

Argazki iturria: Hornitze-Katea

Eroski eta Ulma Handling Systems, LKSren partaidetzarekin, guztiak Mondragon Korporazioko kooperatibak izaki, beren indarrak batu dituzte elikadura-plataforma bat sortzeko Elorrioko herri bizkaitarrean, zeinek botilen logistika bera ere automatizatu duen. Teknologia-garapena elkar-lankidetzako proiektu baten fruitua izan da, zeinek nazioarteko negozio-lerro berriak sortu dituen Ulma Handling Systems-entzat. LKS, bestalde, obra zibilaz arduratu da.

Plataforma aitzindari horrek, lean prozesu-instalazio bat bezala kudeatzen dena, pisuaren %70 automatizatu du, 2.000 tona egunean. Gainera, era automatizatuan kudeatzen du Elorriotik egunero hornitzen diren 140.000 eskari-kaxen %50. Horrek aukera eman du profesionalen lan-baldintzak hobetzeko, zeren eta haien zamen pisua murrizten baitu.

Azken aurrerapen teknologikoak berekin dakartzan instalazio berritzaile honekin, Eroskik eraldatu egiten du bere eredu logistikoa jasangarriagoa eta efizienteagoa den beste baterantz, bere dendetan behar dituzten produktuen eskariak ekoizteko modua berrasmatu. Gertaera horrek Europako plataforma berritzaileenak direnen top 10ean kokatzen du plataforma hori, eta botila-eskariak era automatikoa prestatzeko gaitasuna duen lehena da azken belaunaldiko teknologiarik esker.

Instalazioak inauguratzean, Agustín Markaide, Eroskiko presidentek honako hau azpimarratu zuen: garrantzitsua dela enpresen

eta berrikuntza-poloen arteko elkar-lankidetzako proiektuak nazioarte-erreferentziako lorpenak eskuratzeko, zeinek eragingo dituzten abantaila lehiakor jasangarriak tokiko enpresentzat. Hori adibide bat da ikusteko banatzaile, fabrikatzaile eta operatzaile logistikoen arteko lankidetzak nola ematen dituen fruituak.

Horietako bat Eroskik eta Ulma Handling Systems-ek teknologia-prozesu berritzaile

propioa garatu izana da, zeren eta iazko urtean definitu baitzen teknologia-diseinua, orduko instalazioen barruan bazeuden I+G-eko laborategi bat instalatzeari esker. Zailtasunik handienetako bat edarien oinarri trokonomikoak markatu du eta dendetako eskariak eratzten duten paleten mosaiko produktu-anitzean haiek orekatzea eta sartzea izan da. Teknologia hori oinarri izan da Ulmaren nazioarteko negozio-lerro berriak irekitzeko.

### Plataformaren datu batzuk

Proiektuaren inbertsioa	40 milioi euro
Okupazioa	403 langile
Urteko jarduera	679 milioi euro
Ekoizpen-gaitasuna	132.000 kaxa/eguneko
Azalera	41.000 m <sup>2</sup>
Karga- eta deskarga-gaitasuna	4.000 palet/eguneko
Karga eta deskarga	125 kamioi/eguneko
Biltegitratze-gaitasuna	35.000 palet
Zerbitzu-bolumena	7.000 erreferentzia egunero (3.500 errotazio baxua)
Operazio-erradioa	Euskal Herria, Nafarroa, Kantabria, Errioxa eta Asturias
Zerbitzu-hartzaileak	26 hipermerkatu, 325 supermerkatu
Zenbat automatizatzen duen	Trafikoaren %50 eta pisuaren 70%

# Negozio-aukerak smart cities-en kudeaketan

Hamaika euskal erakunde, hiri adimendunen zerbitzurako aurrerapen teknologikoen interesagatik elkarturik, negozio-lerro berriak miatzea erabaki dute dagoeneko badauden hibridazio edo teknologia-konbinazio kontzeptua garatuz. Emaitza e-Menhir da, euskal enpresei hazkuntza-ahalmen handiko merkatu batean sarrera bideratzen dien proiektu bat, non lankidetzaren ezinbestekoa den aukera berriak sortzerakoan.

HispaVista, Euskaltel, Ibermática, Masermic, Dinycon, STT Ingeniaritza eta Sistemak, Aholkularitza Luminikoa, IK4-Tekniker, GAIA-Klusterre TEIC, Berrikuntzako Ibermática Institutua, HispaVista Labs-ek koordinaturik eta Bilbo eta Zamudioko Udalen, eta Cimubisa eta iPARKSaren lankidetzarekin, partzuergo horren bazkidek

gaitasun teknologiko osagarriak batzearen garrantzia azpimarratzen dute negozio-bide berriak azaleratzeko.

e-Menhir-ek era hari gabe eta digitalean kudeatzen ditu hiri adimendun batean operatzen duten zerbitzu publikoak, hala nola argiztapen publikoa, aparkalekuak bezalako guneen erabilpenaren analisia, denbora errealean kutsadura akustiko eta atmosferikoko mapak eragitea, hiri-

hondakinen kudeaketa edo pertsonak zenbatuz guneak erabiltzea. Hori guztia egingarria da hiritarren elkarrekintzari esker aparatu elektronikoei esker. Proiektuaren erakargarritasun handienetako bat instalazioa sinplea, modularra eta eskalagarria izatea da, eta horrek erraztu egiten du haren ezarpena.

e-Menhir-ek berehalako efektua izango du energia aurrezten eta ekonomian, eta horrek biztanleen bizi-kalitatean eragina izango du, zeren eta trafikoa modu efizienteagoan kudeatzeko aukera emango baitu, adibidez, edo karbono-dioxidoaren isurpenak murrizteko, beste abantaila batzuen artean. Hiri adimendunak jauzi kualitatibo bat izango dira erakundeek eskaintzen dizkieten pertsonen eta zerbitzuen interkonexioan.



hau partekatu  
nahi dut . . .

# Barne-ekintzaitzaren aldeko apustua

Velatiak beti egin du apustu enpresaren barruan balorea sortzearen eta jarduera berriak eragitearen alde aurrerapen-hazkuntza eta hedapen-berme bezala.

Gure bulkada "ekintzailea" urteetan sortu zen enpresaburu fundatzaile batengandik eta haren inguruko kolektibo txiki batengandik; gure sendotasuna beti egon da lotuagoa egikaritze bikain bat lortzeko lerrotu eta fokatzeko gure gaitasunari loturik.

Urte luzetan zehar aitortu izan dugu ideia hoberenak bezeroekiko eta prozesuekiko hurbiltasunetik sortzen direla, eta beti egin izan ditugu ahaleginak bezeroen eta hornitzaileen ideia onak entzun eta atzemateko. Orain erronka berri bat dugu: gure enpresaren barruan ekintzaitza sustatzea balorea, aukerak eta lehiakortasuna eragiteko faktore bezala.

Helburua argia da, baina nola lortu pertsonen, pertsona bakoitzak bere gaitasunak proiektuaren zerbitzura jartzea? Ez dut uste erantzun bakarra eta baliozkoa dagoenik galdera horrentzat. Enpresa bakoitza bakarra eta desberdina da hura osatzen duen pertsona bakoitza bezala. Hala ere, uste dut badirela gako batzuk kasu bakoitzean eta modu erabakigarrian esku-hartzen dutenak.

• **Gardentasuna.** "Ezinezkoa da ezagutzen ez dena nahi izatea". Inplikazioa, konpromisoa, ekimena, ulerkuntza, babesa,... bilatzen ari bagara aurrea gardentasunaren pausoa eman behar dugu, ez bakarrik une zailetan, etengabe baizik.

• **Estimulatzea,** animatzea, motibatzea liderren ardura da. Jarraibidea eman behar diegunengan ezarri behar dugu exijentzia. Ez da beharrezkoa ideia distiratsuak izatea, bai ordea mehatxatuak eta erreaktiboak ez agertzea geure lankideen eta lagunen ideien aurrean. Aitzitik, estimulatu, animatu eta

motibatu egin behar ditugu, ahal bada era ordenatuan, erronka egin diezaieten finkatutako oinarri eta printzipioei bide berriak urratu eta erronka berriak proposatzeko.

• **Aitortza.** Erraza da emaitza onei txalo jotzea, baina pertsonen ekimena hartu eta beren erosotasun-ingurunetik irteteko arriskua beren gain hartzea nahi badugu, ikasi egin beharko dugu ahalegina, ekimena, asmoa aitortzen eta txalotzen, emaitza zehatzaz harago.

Velatian aldaketa hori ikusten ari gara nerabazarotik heldutasunerako pausoa bezala, geure ADNeko ezaugarri hoberenak mantendu nahi ditugun prozesu bat bezala: umiltasuna, handinahia, berrikuntza eta langiletasuna; esperientziak, kultura-aniztasunak, gardentasunak eta partaidetzak aberastuz.

Pazientziak, ordenaz bultzatu nahi dugun aldaketa bat da, zimentarrien gainean lan eginez. Gero eta pertsona gehiago inplikatu nahi ditugu epe ertain eta luzeko gure estrategia definitzen; estrategia hori komunikatu eta azaldu eta gure interes-talde guztiak orientatzen dituzten zuzentarauak.

Duela hiru urte abian jarri genuen garapen gidatzaileko programa bat ATRAE (Active TRaining for Employability) gure lider-kolektiboari zuzendua beraiengandik hasita aldaketaren eragile bultzatzaile bezala



Javier Ormazabal,  
Velatia Taldeko  
presidentea

jokatze bitartekoz haiek hornitzeko asmoarekin. Hortik dator haien "enplegarritasuna" hobetzeko enfasia. Programa hori ekintzailtza trinko eta iraunkor baten kultura eraikitze zimentariak trinko lantzeko gure asmoaren isla da.

Ez dut errezetarik, ez eta aholkurik edo adibiderik ere barne-ekintzailtza gure

ikuspena argitzen dutenik, egiazki gauza bat bakarrik parteka dezaket: gure pertsonengan dagoen energia eta erronka suhar horri aurre egiten diogunean sortzen zaizkigun galderei ematen dizkiegun erantzunak balioan jartzetik pasatzen dela gure etorkizuna

Azken kontsiderazioa, barne-ekintzailtza buruzko barne-debatea balioa,

lehiakortasuna eta epe luzeko jasangarritasuna eragiteko formula bezala planteatzea ariketa bat da besterik gabe, zeinek umiltasunez, zintasunez eta pazientziarekin burutzen bada auto-ezagutza eta balioaren ekarpena egiten duen.

Egiten den bidea, helmugara iritsi baino lehen ere, jadanik bidaia interesgarria da.

## 2.000 pertsona baino gehiago konektatzen dira Global Innovation Day-rekin

Bilboko Alhondigak 2014ko urtarrilaren 30ean Global Innovation Day-ren hirugarren edizioari harrera egin zion, gaur egun Euskadin egiten den berrikuntzaren eskaintza eta eskaria aktibatzeke balio izan zuena. Topagune horretan 2.000 pertsona bertaratu ezagutu ahal izan zituzten protagonisten eskutik hemen eta munduaren gainerakoan berrikuntzaren barrutian ekoizten ari diren azken joerak, esperientziak, produktuak eta zerbitzuak.

Global Innovation Day-ren inaugurazioak honako hauen presentzia izan zuen: Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko ahaldua den Imanol Pradales; Andoni Aldekoa, Bilboko Udaleko Alkatezako zuzendari ordezkarria; Aitor Urzelai, Eusko Jaurlaritzako Ekintzaitza, Berrikuntza eta Informazio Gizartearen zuzendaria; eta Alberto García-Erauzkin, Innobasqueko presidentea..

Ondoren, Carmen Medina, Estatu Batuetako Deloitteko Inteligentzia Federaleko Zentrokoa eta 32 urtez CIAren Inteligentzia-zuzendaria izanak hitz egin zuen inaugurazio-ekitaldian, zer garrantzi duen enpresa-gidariak bihurriak izateak baikortasunean oinarritutako konponbideak sortzeko eta arauak aldatzeko



Ezkerretik eskuinera: Txema Villate, Andoni Aldekoa, Ana Andueza, Carmen Medina, Aitor Urzelai, Alberto García Erauzkin, Imanol Pradales eta Ignacio Lakunza



gai izateko. Era berean sare sozialek exekutiboek eskaintzen dizkien aukerak ere erakutsi zituen.

Jardunaldian zehar, jarduera-multzo bat ere garatu zen: 21 tailer, 38 erakusketa-txoko eta 5 hitzaldi-panel teknologia disruptiboen negozio-aukeraz hala nola Google Glass, berrikuntzaren finantzaketa, berrikuntza-

potentziala, enpresa-erantzukizun soziala eta kudeaketa berritzailea erabaki-hartze adimendunaren bitartez. Global Innovation Day, gainera, sare sozialetan jarraitu ahal izan zen, hashtag #global2014-aren bitartez, zein izan baitzen trending topic ez Euskadin bakarrik, Estatu guztian baizik.

Global Innovation Day-ren edizio hau Innobasqueren bazkideen sareko 80 erakunderen lankidetzari eta Eusko Jaurlaritzara, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala, Deloitte eta Alhondiga-Bilbaoren laguntzari esker egin ahal izan zen.







## Innobasqueko webgunea, berrikuntzarako gune bat

Urteko Batzarrean, Innobasquek bere webgune berria aurkeztu zuen, simple, ikusgai eta didaktikoagoa, erabiltzaile bakoitzari esperientzia bakarraren ekarpena eginez, sakonerako edukiekin, berrikuntzarako lanabes berriekin eta nahierako informazioarekin.



Gune hau web sozialeko printzipioetan oinarritua, bazkide guztien, komunikazioko bitartekoen eta oro har gizartearen irismenean dagoen kanal berri bat da. Berrikuntzako gaien kohesioko leku bat, zeinen helburua lankidetzeta, edukia eta ezagutzaren kudeaketa, bai eta networking eta pertsonen arteko konexioak indartzea eta bultzatzea den.

Webguneko sail berrien artean, "Bazkideen on-line katalogoa" dago, bazkide diren erakundeetarako topaketa-gune bat, non erakuts dezaketen berrikuntzarako gaitasuna eta sareko gainerako bazkideena ezagutu dezaketen, albiste, bideo, argazki, eta abarren bitartez. Innobasqueko sarearen potentzialtasun guztia aktibatzen behar den guztia, lankidetzeta sustatuz eta Euskadi herrialde berritzaile bat bihurtzen lagunduz bere enpresen, teknologia-zentroen, unibertsitateen, administratzen, eteen, mikroeteen, korporazio handien, eta batez ere pertsonen gaitasunari esker.

Beritasunetako beste bat "Innosphere" da, non jasotzen diren berrikuntzari buruzko eduki garrantzitsuenak, azken joerak, beritasun handieneko albisteak, blogger ezagunenak, eta abar. Hori guztia erabiltzailearen eskura klik bakar batez.



Parte-hartzaileak brunch&learn-ean

## Brunch & learn, ezagutza eta ikaskuntza partekatua sustatuz

Hamalau erakunde transferitu zuten beren ezagutza lan-jardunaldi, tailer eta ponentzien bitartez; berrikuntzako barruti guztietara bideratutako beren praktika onak erakutsi

zituzten eta beren enpresa-esperientzia 240 pertsonarekin partekatu zuten, zeinek 2014an zehar, Innobasqueren egoitzan egindako brunch & learn 6 topaketatan parte hartu baitzuten.

### BRUNCH & LEARN 2014:

#### Esportatzailearen 13 ohiko akats.

Otsailak 21

Antolatzailea: **RBT Consulting**

#### Cloud Computing-aren 10 Gako.

Apirila 11

Antolatzaileak: **Serikat, Openikasgela, Euskal Herriko Unibertsitateko Industria Antolaketako saila.**

#### Gaitasunak, erakundearen etorkizuna.

Maiatza 30

Antolatzaileak: **Asses, Nexian Training, Tenzing, eta Deustuko Unibertsitatea**

#### Ni esportatzen ari naiz... eta orain zer?

Ekaina 20

Antolatzaileak: **Suuma eta UR Global**

#### Himnoberrikuntza praktikatzan.

Urtia 31

Antolatzaileak: **AZK eta Durero Estudios**

#### Neuromarketing, zure bezeroek zer sentitzen duten jakiteko era berri bat.

Azaroa 21

Antolatzailea: **Ope Aholkulariak**

## Emakumeak eta teknologia

Joan den urrian egin zen emakumeentzako lehen programazio-ikastaroa Koldo Olaskoagak (Easo Politeknikoa) eta Mireia Viladomiuk (Bilbao Makers) sustatua. Tailerra, zeinean 20 emakumek parte hartu zuten, Emakunderen Berdintasuna 2014rako Foroaren programaren barruan kokatu zen

Gizonak nagusi diren ingurune batean emakume zientzialariek dituzten erronka eta zailtasunak analizatzeko, Andrea Blancorekin topaketa bat ere eskaini zen, zeinek jasoa baitzuen Ada Byron Sariaren akzesita Emakume Teknologoa 2014-ri emana. "Ohartu nintzen programatu beharra nuela neure esperimentuak nola ezarri behar nituen jakiteko. Adibidez, neure esperimenteren fisika ulertzeko edo argiaren fisika sistemak, modelatu edo simulatzeari esker" aitortzen zuen Andreak galdetu zitzaionean zerk motibatzen zuen programatzen ikasteko.



Andrea Blanco Tecnaliako instalazioetan

## Innobasqueko Bazkideen VII. Batzar Nagusia inauguratu du Lehendakariak

Joan den ekainaren 4an egin zen Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkean Innobasqueko Batzar Nagusia. Ekitaldian 300 pertsona izan ziren Iñigo Urkullu lehendakariaren pean, eta honako hauek izan zituen laguntzaile: Arantxa Tapia, Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua eta Innobasqueko presidenteordea; Jon Darpón, Osasun sailburua; Cristina Uriarte, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua; eta Juan Maria Aburto, Enplegu eta Politika Sozialetako sailburua. Gainera, Batzarrean 2012-2013 Memoria aurkeztu zen, zeinek bazkide askoren partaidetzaren bitartez azken bi urteetako Innobasqueko historia jasotzen duen. Izaera digital, bisual eta interaktiboa duen argitalpen horretan, berrikuntza presente dago, nola edukian hala hura komunikatzeko moduan.



Innobasqueren Zuzendaritza Biltzarkideak



## Berrikuntza-eskola: lankidetzaren laneko plataforma

Abian da Berrikuntza Eskolako lan-mahaia. Joan den abenduan Innobasqueko 20 erakunde bazkidek, zeinek ordezkatzen duten mundu akademikoa, eskolakoa, zientzia eta teknologikoa, enpresakoa eta administratibakoa, lankidetzaren aritzea itundu zuten gazteen artean berrikuntza sustatzeko eta Euskadik hezkuntzan duen kokagune berritzailea sendotzeko. 2015eko lan-planak argitalpen baten edizioarekin joko du gorenari, non jasoko diren heziketa berritzailean arrakasta izan duten kasuak.



Parte-hartzaileak Cleantech now! berrikuntza tailerlean

## Cleantech now!: ekintzailletza eta berrikuntza

Gese, Ocean Electric, Zero Lab, Likuid Nanotek, Tecnalia Ventures, Planet Energy, Dynicon Sistemas, Ausolan eta Birzitzako ordezkariak 400 unibertsitate-ikasle eta LHkoekin batera lan egin zuten teknologia garbietan oinarritutako enpresa-erronkei erantzuna emateko. Zer eratarra hobetu ainguratze-sistema bat itsas energia sortzeko?

Nola identifikatu mintz batzuen potentziala hondar-urak arazterakoan? Zein da sistemarik hoberena eskola-jantokietan eragindako hondakinei irteera emateko? Horiek dira Cleantech now! Berrikuntzako tailerlean planteatutako 11 erronken arteko batzuk.

Tecnun-eko ikaslea den Rodrigo Fernández Touzak, bestalde, irabazi egin zuen Cleantech

now! ekintzailletza-lehiaketa Smart Cup negozio-proiektuarekin, poltsikoan eraman daitekeen tamaina txikiko edalontzi tolesgarri batekin.

Cleantech now! Gazteak teknologia garbietan sartzeko ekimen bat da, hazteko eta enpleguak sortzeko potentzial handiko industria bat Euskadin, 25.000 enplegutaino 2020 arte.

## TrainINN Lab, berrikuntza egiten ikasten

Diseinuko ontziak muztioa erakargarriago bihurtzeko, hondartzan bizikide izateko guneak seinaleztatuko dituen plan bat, mugikortasun mugatuko pertsonentzako jarduerak antolatuko dituen enpresa bat, ezarpen mugikor bat informazio eguneratuarekin eta udal-arduradunen agenda nagusientzat papereko bertsio bat barne-bilduko duena eta olatuen energia baliatzeko azpiegiturak dira bigarren mailako 225 ikaslek Donostian eskaini zituzten konponbideak hiri berritzaileagoa bihurtzeko.



TrainINN Lab berrikuntza-laborategiko partaideak

TrainINN Lab berrikuntza-laborategia joan den apirileko 8an egin zen Donostiako Sustapenaren lankidetzarekin eta FECYT-Zientzia eta Teknologiako Espainiar Fundazioak-Ekonomia eta Lehiakortasuneko Ministerioak finantzaturik. Berrikuntza irekiko

metodologia baten bitartez, jarduera horretarako ex profeso sortua, ikasleek beren ideiak aurkeztu zituzten honako hauen aurrean: Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak, Surf City Gipuzkoa, Lagun 24, Ikasplay eta Enea aholkularitza.



FLL Euskadiko taldeak eta boluntarioak

## Berritzaileen harrobia elkartu da FLL Euskadin

Amorebietako (Bizkaia) Karmengo Ama Ikastetxea, Barakaldoko (Bizkaia) El Regato Ikastetxea eta Arrasateko (Gipuzkoa) Arizmendi Ikastola izan ziren First Lego League (FLL) Euskadi zientzia eta robotikako torneoaren seigarren edizioako hiru irabazleak XXI. Mendeko ikaskuntzari buruzko beren proiektuekin. 2015eko martxoan Euskal Herriko ordezkariak izango dira Tenerifen egingo den FLLeko espainiar finalean.

Txapelketan Junior FLLren erakustaldi bat ere ikusi ahal izan zen, zeinean 6 eta 9 urte bitarteko 30 hurrek beren ikerketak erakutsi zituzten berek programatutako heziketa-lanabes eta maketa mugikorren bitartez. Halaber, aukera izan zuten honako hauek hurbiletik ikusteko: Europar Espazio Agentziako entrenamenduko urpekari bat, astronauten janari deshidratatuak duen itxura, Lego atalez egindako tximeleta efektu bat, lehen bideojoko eta roboten bilduma bat, eserleku bakarreko Student Formula auto elektriko bat (UPV/EHUko ingeniartzako ikasleek burutua) eta Oculus betaurreko batzuk probatzeko aukera Bilboko itsasadarrean paseo bat egiteko.

Jardunaldiari bukaera emateko dron batek argazkia atera zien airetik parte hartu zuten FLL Euskadiko 350 ikasleei eta 100 boluntarioei.



### ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO PRESTAKUNTZA

Ikaskuntza edo World Class izan zen FLL 2014 erronka. FLL lantaldeei XXI mendean lortzen ditugun ezagutza eta trebetasunei konponbide berritzaileak eman zitzaten erronka jarri zitzaizkien.

Erronkaren izaera zientifikoa eta teknologikoa ulertzen laguntzeko, Euskaltel, UPV/EHUko Ikasgela Espazio Vicomtech-ik4, Virtualware, Tecnun eta Ceit-ik4, Deustuko Unibertsitatea eta Tecnaliako 17 ikertzaile eta adituk hitzaldiak eta bisita gidatuak eskaini zizkieten FLL Euskadiko lantaldeei. Hartara, aro digitalean pribatutasunak duen balioa ezagutu ahal izan zuten, nola prestatzen den ikertzaile bat espazio-sektorean, zein diren ikaskuntzari ezarritako teknologiak, nola lantzen den identitate digitala, tableten eta mugikorren erabilera ikasteko edo teknologia-laborategiak etorkizuneko ikasgelak diseinatzeko.

Guztira, 23 orduko prestakuntza-programa esklusiboa, nondik 620 ikasle baino gehiago igaro diren, 10 eta 16 urte bitartekoak.

### FLL EUSKADI 2014 ERAKUNDE LANKIDEAK

**Euskaltel Fundazioa**

**“La Caixa” Gizarte Ekintza**

**Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saila**

**Bizkaiko Foru Aldundia**

**Euskal Herriko Telekomunikazioetako Ingeniarien Elkargoa**

**Tecnalia Korporazioa**

**Alianza IK4**

**Aero Espazio Eskola**

**Decathlon Barakaldo**

**Ausolan**

# Euskal berrikuntza lehen pertsonan Innobasqueko Astearteen bitartez

61 hizlarik ezagutarazi zituzten beren esperientzia berritzaileak 2014an izandako Innobasqueko 8 Astearteetan. Enpresa, heziketa, zientzia eta teknologia, administratza eta ikerketa-barrutik zetozen adituek berrikuntza egiten ikasteko aukera eman diete 950 pertsonari baino gehiagori.

Honako hauek dira landu ziren gaietako batzuk: nola egin berrikuntza komunikazioaren barrutian; zer pizgarri fiskal ari diren positiboki eragiten berrikuntza sortzen; zer erataria igarotzen den enpresa bat

produktuetan oinarritutako estrategia bat izatetik bezeroengan oinarritutako batera; zein diren Euskadin ohitura osasungarriak sustatzen ari diren praktika onak; zer konponbide eskaintzen dituzten matematikak enpresa bateko datuak maneiatzen eta erabakiak hartzen; nola erantsi emozioen kudeaketa erakundeetan; zer erantzun eskaintzen dizkien berrikuntzak hirietan sortzen ari diren erroka sozio-ekonomikoei; edo lankidetzaz ezinbesteko lanabes bezala berrikuntzarako.



## Erakunde lankideak 2014

Adimen Emozionalaren Partzuergoa  
Aenor  
Altzolako Ura  
Aurrera atera  
Azti-Tecnalia  
Banco Sabadell  
Banpro  
Bartzelonako Udala  
Basque Team  
BCAM  
Bilboko Udala  
Biobai  
Bizkaiko Sendagileen Elkargoa  
Deustuko Unibertsitatea  
Dircom Euskadi  
Donostia Sustapena  
Ekonomialarien Euskal Elkargoa  
El Correo  
Estrategia Empresarial  
Euradia World Consulting  
Euskalmet  
Eusko Jaurlaritzaz  
Farapi  
Gaiker-IK4  
Global Approach Consulting  
Goazen up  
Gorabide  
Hermeneus  
Hirispace  
Iberdrola  
Ideable  
IK4-Tekniker  
Ikatz  
Inorcon  
Instagi elektrikariak  
La Asunción klinika  
Leroy Merlin  
Munduko medikuak  
Nafarroako Unibertsitatea  
Sener  
Social Sound  
Spri  
Tecnalia  
The open shoes  
Ticket bis  
Ulma  
UPV/EHU  
Urbegi  
Velatia  
Vitoria-Gasteizko Udala  
Walk on project  
Xupera




Innobasque Exchangeen parte-hartzaileak

## Innobasque Exchange-k bi topaketa berri egin ditu

84 erakundetatik etorritako 120 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten Innobasque Exchangek 2014an egindako bi edizio berrietan.

Lankidetzaz-berrikuntzako plataforma hori, Innobasqueko bazkideei zuzendua eta zeinen helburua berrikuntza sustatzea den lankidetzaz-prozesuen bitartez, esparru izan zen 16 proiektu aurkezteko bazkide komertzial, enpresazko eta teknologikoen; inbertitzaile txikien; denbora-trukearen; kostuak partekatzearen; zerbitzuen eta abarren bila.



### INNOBASQUE EXCHANGE 2014 PROIEKTUAK

**Erle**, ikas ezazu robotika drone hegalaria batekin

**Decoramus**, altzarien marketplace-a

**The Humans' Network**, Gizakien sarea

**Flumbo**, aparkaleku segurua zure txirrinduarentzat

**DataSurfHouse**, ezagutu ezazu sakon itsas hondoa

**Preskriptor.org**, errentagarri bihurtzazu zure gomendioak

**GPMESS**, geolokalizatu zure esperientziak

**WiMi 5**, programaziorik gabeko gamifikazioa

**MotionBox**, etorkizuna zeure esku

**Bikonsulting**, Guztien ongiaren aldeko udal plataforma

**Kimet Planning**, kirol-plangintzako ezarpen informatiko bakarra adimen propioarekin

**Babyduino**, zure haurtxoa zaintzen duen arduinoa

**Warantum**, zure bermeen on-line karpeta

**ComParko**, partekatu aparkalekua

**Urpean Factory**, berrikuntza egiten itsasoan



Ezkerretik eskuinera: David Mayoral, Andrea Blanco, Iñaki Goirizelaia, Alberto García-Erauzkin, Iñigo Urkullu, Antonio Zea, Jesús M<sup>o</sup> Iriondo, Ana Roquero eta Gretchen Kalonji

## Euskadik berritu egin du bere konpromisoa zientzia, teknologia eta berrikuntzarekin

“Berrikuntza herrialde-erronka bat da”. Hala inauguratu zuen Iñigo Urkullu joan den azaroaren 3an Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako 14<sup>o</sup> Astea 300 pertsona baino gehiagoren aurrean. Haren ondoan ziren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Kontseiluko kideak

Antonio Zea, Adidas futboleko Berrikuntza Globaleko zuzendariak eman zuen inaugurazio-hitzaldia. Bere esku-hartzean enpresako berrikuntza-laboregian jarraitzen duen metodologia azaldu zuen. Horretarako Brazuca futbol-mundialeko baloi adimendunaren kasua erabili zuen. Produktu hori 2 urte eta erdi baino gehiagoko I+G+b-ko lan baten emaitza bezala jaio zen, 600 futbolarik baino gehiagok testatu dute, NASAK aurre-ebalatu du eta ikerketaren emaitzak

Scientific Reports-en argitaratu dira. Gainera, hizlariak hasikin bezala kontatu zuen bere



berrikuntza-lantaldea gaur egun honako honetan ari dela lanean: baloi adimendun eta teknologiko batean, zeinek helburu duen edozein pertsonari bere futbola hobetzen.

Hitzaldiaren ondoren Jesus M<sup>o</sup> Iriondo IK4ko presidentek elkarrizketa bat moderatu zuen honako gaiez: zientzia, teknologia eta berrikuntza nola dauden konprometituak gure inguruneko desfizioei erantzuna ematen, eta nola ari diren hori ezartzen diseinu, ikerketa, teknologia eta enpresatik, hurbileko kasu praktikoan bitartez. Mahai biribilean honako hauek parte hartu zuten: Andrea Blanco, Tecnalian fotonikako ikertzaile espezialista, David Mayoral, Erle Robotics-eko CEO-a, Ana Roquero, Cookplay-ren sortzailea, Gretchen Kalonji, Unescoko Natura Zientzien zuzendariorde nagusia, eta Antonio Zea bera.

UPV/EHUko errektoreak, Iñaki Goirizelaia itxi zuen ekitaldia.

# MUNDUKO POPULAZIOA

1 Txina 1.357 milioi		6 Whatsapp 600 milioi	
2 India 1.252 milioi		7 Google+ 540 milioi	
3 Facebook 1.230 milioi		8 USA 316 milioi	
4 Youtube 1.000 milioi		9 Twitter 255 milioi	
5 Tencent 618 milioi		10 LinkedIn 250 milioi	



# EUSKADIKO POPULAZIOA

1 Bizkaia 1,15 milioi		7 Twitter 353.000	
2 Whatsapp 930.000		8 Bilbao 351.629	
3 Facebook 837.000		8 Araba 322.557	
4 3 hiriguneak 780.261		10 LinkedIn 279.000	
5 Gipuzkoa 712.097		11 Vitoria-Gasteiz 242.223	
6 Youtube 628.000		12 Donostia 186.409	





# INNOBASQUE KOMUNITATEA

1 Twitter 16.754



2 LinkedIn 9.486




3 Openideiak 7.624



4 Facebook 5.084



5 Besteak 1.643



# Munduari bira berrikuntzaren bitartez

Urtarriletik abendura, erakunde eta herrialde desberdinetako 132 pertsona hurbildu ziren "Innobasque esperientzia" ezagutzera; batzuk helize laukoitzaren ereduaren hedapenak erakarrita, beste batzuk garapen adimendunaren estrategien ezarpenak ezagutzeko, edo herrialdean berrikuntzaren inaktuaren neurketak harriturik. HELGEko ordezkariak,

German Marshall Fundeko ordezkariak edo Txileko Aysen eta La Araucaniako erregioetakoak, Costa Rica, Kolonia, Polonia edo Erresuma Batuko ordezkariak, besteak beste, iritsi ziren Bizkaiko Zientzia eta Teknologiako Parkera Berrikuntzako Euskal Agentziako zoko-moko guztiak ezagutzeko.



## HELGEk berriz berresten du Innobasque eredua

"Economic Survey of Spain"-en 2014ko edizioa lantzeko asmoarekin, HELGEk 18 hilabetez behin herrialde bazkide bakoitzari buruz egiten duen, Ekonomia departamentuko argitalpen garrantzitsuena da. Lankidetzak eta Garapen Ekonomikorako Erakundearen ordezkariak batek Madril, Bartzelona eta Euskadira bidaiak egin zuten. HELGEko bazkideak, Ekonomia eta Lehiakortasuneko Ministerio espainiarreko goi-arduradunak lagundurik etorri ziren, eta euskal erakunde estrategikoekin batu ziren, hala nola Spri Taldea, Elkargi, Confesbask, Tecnalia, IK4 Research Alliance eta

Innobasquerekin. Zamudioko bilerako lan-agenda berrikuntza eta hazkuntza jasangarriari buruzko gaien ingurukoa izan zen. Bisitariak interes berezia erakutsi zuten Innobasqueren helize laukoitzaren ereduaren garapenari buruz.

"Economic Survey of Spain 2014", irailan aurkeztua, Espainiako bilakaera ekonomikoaren azterketa osoa da, eta ekonomia horrek aurre egiten dien erronka nagusiei kapitulu berezi batzuk eskaintzen dizkie. Horietako bat epe ertain eta epe luzeko hazkuntzaren sustapenari buruzkoa da. Hori lortzeko, HELGEk honako hau

proposatzen du: "berrikuntza konpromiso bat izatea nazio-mailan ezagutzaren gizarte bat lortzeko, gobernuaren, enpresa-sektorearen eta ikerketa-munduaren lidergo politikoa izanez. Garrantzitsua da Gobernu maila gorenen babes politikoa eta konpromiso zabala izatea. Hori lortzeko ibilgailu posiblea nazio-mailako berrikuntza-sare bat izan liteke Innobasquek duenaren antzekoa, berrikuntza-agentzia pribatua irabazi-asmorik gabea, Euskadiko enpresa eta gobernu liderrek bultzatua, zeinen helburua berrikuntzako aktoreen lankidetzak sustatzea izango den".



German Marshall Fundaren bisita Innobasquera

## German Marshall Fundaren bisita Innobasquera

Estatu Batuetako German Marshall Fundek (GMF) antolatutako Bilbo Hiri Berrikuntza eta Lidergoko Elkarrizketak Foroak ekitaldi bat burutu zuen Innobasquen euskal berrikuntzaren egoera ezagutzeko. GMF goimailako topaketa bat egiten ari zen, eta bertan Estatu Batuetako eta Europako tokiko ehun lider baino gehiagok hirietako berrikuntza eta aldaketan lider izateko estrategiak eta fokatzak eztabaidatu zituzten. Deialdia hirigarapeneko gaitan abangoardiako politikak analizatu eta planifikatzen aritu zen.

German Marshall Fund irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da 1972an eratuia Alemaniako Estatu Batuei egindako ekarpen batez, Marshall Planari omenaldi iraunkor bat izateko xedearekin, Bigarren Mundu Gerraren ondoren Estatu Batuek burutu zuten Europari laguntzeko programa hura zela-eta. Haren izateko arrazoia honako honetan datza: Atlantikoaz harandiko lankidetzaren indartzean erregio-, nazio- eta mundu-estrategia eta -aukerekiko zerikusia duten aspektuetan.

## Aysenek Euskadin aurkitu du erreferentzia bat

Aysengo erregio txiletarreko ordezkariarekiko topaketak ibilbide bat baino gehiago izan zituen. Aysen jende gutxien duen lurraldea da eta Andesetako herrialdeen artean biztanleria-dentsitate gutxienekoa; 105.000 biztanle baino zerbait gehiago du, biztanle 1 km<sup>2</sup>-ko. Gune hartako ordezkarietan honako hauek zeuden: Claudio

Montecino, Txileko Ekoizpen Korporazioko arduraduna (Corfo); Claudio Póveda, Aysengo Liburutegi erregionalen koordinatzailea; Patricia Calvo Quijada, Lizeo San Felipe Benizioko Unitate Tekniko Pedagogikokoa; Verónica Ehijos Muñoz, enpresaburua; Álvaro Salín, Berrikuntza Erregionaleko aholkularia eta Pablo Alarcón Aysengo Gobernu

Berrikuntza eta Lehiakortasuneko arduraduna eta azaldu zuten erregiorako berrikuntza-estrategia batean murgildurik daudela.

Euskadira egindako bisitaldian txiletarreko RIS3 espezializazio adimenduneko estrategien ezarpenean eta euskal berrikuntza sozialean ezagutu zuten esperientzia.

## “Berrikuntza egiten ez badugu, garapena konplikatua da”

Pablo Alarcón, Aysengo  
Gobernuko Berrikuntza eta  
Lehiakortasuneko arduraduna



### ¿Zer testuingurutan kokatzen da Euskadira bisita?

Berrikuntza-estrategia bat eraikitzen ari gara Aysenentzat. Lan horretarako RIS eredu batean oinarritutako metodologia eta ezarpenarekiko Europako erregioen ikuspen bat izan nahi genuen. Horregatik, beharrezkoa zen bidaiatzea, hemengo erregioetan horrek zer esan nahi izan duen ikuspen bat izateko.

### Erregioaren berrikuntza-egoeraren diagnostia burutzen ari dira. Zer ondoriotara iritsi zarete eta nola diseinatuko duzue berrikuntza-estrategia berria?

Ondorio batera iritsi gara: berrikuntza egiten ez badugu garapena oso konplikatua ikusten dela. Erregioa bakartu samarra gara, nire iritziz Txileko bakartuenetako bat: 105.000 biztanlerekin eta biztanleko 1 km<sup>2</sup> biztanleria-dentsitate batekin. Horrek honako hau esan nahi du: elkarrengandik oso barreiatu gaudela ez geografikoki soilik baizik eta konektibitate digitala bezalako aspektuetan ere. Horregatik, asko kostatzen da masa kritikoa sustatzea hazkuntza bultzatzeko. Industrietz hitz egin ere ez, baina badugu baliabide naturalen ondare zoragarri bat potentzial turistiko handikoa eta hura garatzeko ahalmena eta egiten ditugun gauza askori balorea ematekoa. Interneten irudi-bilaketa bat egitea aski da horretaz

## “Gure ardatza giza baliabideekin erlazonatutako ezagutza-polo bat izatera iristean datza”

ohartzeko. Gure ardatza giza baliabideekin erlazonatutako ezagutza-polo bat izatera iristean datza. Zer puntutaraino ustia ditzakegu geure baliabide naturalak? Noiz jarri behar dugu baliabide horiek ustiatzearen aurka enpresa handien aldetik? Ez dugu datu-baserik zeinen ganean geure posizioa argudia dezakegun Patagoniako ibaien ibilbidea aldatzearen desegokitasuna justifikatzeko, fauna edo flora mota jakin bat erasango ote den, eta abar. Mota horretako azterlan asko falta dira. Izan ere ez dugu unibertsitaterik Aysenen. Horregatik, ezagutza-poloak karrera espezifikoak izateko aukera emango liguke, eta horrek beste leku batzuetako ikasleak erakarri ere egin lezake erregioan sustriak ezar ditzaten. Beste beharretako bat ekintzailatza sustatzea da. Ekintzailatza eta berrikuntza-tasaz hitz egitea gure kasuan zaila da, ez baitago lehiarik. Horregatik, zergatik desberdinduko naiz, zergatik gehitu balioa, egiten dugunarekin aski bada? Hori berrikuntza

sozialarekin jartzen dugu harremanean eta hona ekarri gaituen gauzetako bat da.

### Zer da gehien zuen arreta erakarri duena Innobasquera egindako bisitan?

Googlen “berrikuntza soziala” ezartzean, %90an erreferentziak Euskal Herriari buruzkoak dira. Horri buruzko Innobasqueren ekimenak arreta erakarri zigun zuek zuen burua ikusteko moduari ematen diozuen garrantziak, nola baloratzen dituzuen partaidetza-prozesuak, zeinean gizarteak ez baitu jokatzeko balidatzaile paper bat a posteriori, baizik eta prozesuan zehar parte hartzen ari den. Bai eta “berrikuntza” terminoa enpresarentzat eskusiboki ez uztean ere, balio ekonomiko bat sortzeko, baizik eta balore soziala eta ekitatea barnebiltzen dituzte. Desberdintasunari erasotzearen zuen ikuspena ere atsegin izan zaigu, pobrezia eraso beharrean, zeren eta oso koherentzia baitago gure gobernu-programarekin.

## Nola neurtu berrikuntza eta Nesta

Nesta, berrikuntzako britainiar agentziak ere jarri zituen begiak Euskadin, azaleratzen ari den berrikuntza sozialeko ekosistemari esker. Jessica Stacey eta Madeleine Gabriel-ek lan-bilera egitekotsua izan zuten Transition programaren osagai bezala, zeinaren helburua 300 berrikuntza sozial eskalatzea den kontinentean bi urteko epean. Programak sei inkubategi desberdin konektatzen ditu, eta horietako bat Denokinn da.

“Ekintzaile sozialek zer egiten duten ikustera etorri gara eta berrikuntza soziala gune honetan nola sustatzen den.” ziurtatu zuten britainiarrek. Staceyk dio “sakontasunez ezagutu nahi zutela zer testuingurutan gertatzen den hori. Innobasqueren historia ezagutu dugu, nola funtzionatzen duen, zein diren haren proiektuak”.

“Interesgarria zaigu konparatzea hemen Innobasquek jokatzen duen papera Nestak Erresuma Batuan burutzen duenarekin. Bi erakundeen artean dauden antzekotasun handiak gorabehera, gauza batek txunditu nau: nola dagoen egituratua Berrikuntzako Euskal Agentzia. Bazkideek eraturako erakunde bat da, eta horrek sinesgarritasun eta erakarmen-indar handia ematen dio





Madeleine Gabriel eta Jessica Stacey

erregioari. Gu ongintza-erakunde bat gara, asko ahalegindu behar duena jendeak ezagutu gaitzan eta zer egiten dugun jakin dezan”, jarraitzen du Gabriel-ek.

Hala ere, Stacey-k honako hau aitortzen du: “gauza batek harritu gaitu benetan, nola ari den neurtzen berrikuntzaren inpaktua pentsamendu abangoardista batez”.



# berrikuntzarako gunek



## EDP, jasangarritasunaren liderraren egoitza Bilbon

Bilboko EDP egoitza oso berrikuntza-maila handiko eraikuntza da, jasangarritasun irizpide zorrotzen arabera diseinatua eta eraikia. Arrazoi horrengatik da US Green Building Council-en LEED (Leadership in Energy and Environmental Design) zigilua.

Energia-taldeak hiriburu bizkaitarrean sortu du bere egoitza korporatiboa, 1924ko fatxada arrazionalistaren jabe den proiektua. Kontsumo baxuko eta energiaren ustiapen hobereana duen eraikuntza adimenduna da eta haren 7 solairuak barne-patio kristaldun zabal baten inguruan banatzen dira, zeinek argia iragazten eta banatzen duen arautzaile

termiko gisa diharduelarik. Eraikuntzan zehar erabilitako 422 tonen %90 altzairu birziklatua da. Obrak gasezko mikro-sorkuntza eta 125 metroko sakoneraraino iristen diren zutabeekin, lur-azpiaren berotasuna ustiatzen duen instalazio geotermikoa ditu. Sistema horiek 16 tona CO2 isurtzea ekiditen dute urtean, eta hori aurrezki esanguratsua da.

Egoitza bera, energia taldeak duen jardueraren isla da. EDP bigarren urtez jarraian lider da Dow Jones Jasangarritasunaren Indizean utilities sektorean. Jasangarritasun-estrategian EDP

Taldearen bikaintasuna onesten duen nazioarteko aitortza horrek honako hau aitortzen du: haren negozioetan ezarri diren praktika onak sendotzea presente dagoen alor geografiko guztietan eta jasangarritasunaren barruti guztietan: ekonomiko, ingurumeneko, sozial eta aginte onekoan. Jasangarritasuneko Dow Jones Indizea jasangarritasunaren eta erakunde erantzukizun sozialean nabarmentzen diren enpresak biltzen dituen burtsa indize multzoa da.

## DATU INTERESGARRI BATZUK

Kokagunea	General Concha kalea. Bilbo (Bizkaia)
Arkitektoak	IMB
Aurrekontua	17,3 milioi euro
Inaugurazioa	2012
Obren iraupena	2 urte
Azalera	3.500 metro karratu
Garaiera	7 solairu
Langileak eraikinean	230

## EDP

Elektrizitatearen eta gas naturalaren sortze-, banatze- eta merkaturatze- negozioan presente dago. Gas naturalaren bigarren hornitzaile nagusia da espainiar merkatuan eta liderra Asturiasen, Kantabrian, Murtzian eta Euskadin. Espainian Euskaditik zentralizatzen du gas-negozioa eta bertako bigarren elektrizitate operatzailea da.



# Innobasqueren balioa...

# gure bazkideak

2014 urtean

55 erakunde berri batu dira,  
eta horiei ongi etorria ematen diegu

## **ADIMEN EMOZIONALEKO PARTZUERGOA**

Hezkuntza eta ikaskuntza sozio-emozionaletik eta banako- zein talde-mailan gaitasun sozio-emozionalen garapenetik, pertsonen eta beraien inguruen eraldaketak sortuko dituzten guneak eta dinamikak sortzea helburu duen elkarte.

[consorciointeligenciaemocional.org](http://consorciointeligenciaemocional.org)

## **AGIRRE LEHENDAKARIA CENTER FOR SOCIAL AND POLITICAL STUDIES**

Gizarte zientzien esparruan diziplinartekoak diren azterlanen zentroa, Agirre Lehendakaria Fundazioak lagundua eta Euskal Herriko Unibertsitatera eta haren (Euskampus) Bikaintasun Campusera lotua.

[agirrecenter.com](http://agirrecenter.com)

## **AGS&B MARKETING & COMUNICACIÓN**

Ikuspegi integral batekin eta bezeroa zerbitzatzeko erabateko bokazioarekin, komunikazio korporatiboaren barruti guztietan aholkularitza, kontsultak eta sormen-, teknika- eta logistika-euskarritze lanak egiten dituen enpresa da.

[agsb.es](http://agsb.es)

## **ARGIA FUNDAZIOA**

Irabazi-asmorik gabeko erakundea babes pertsonalizatuko baliabidesare bat eskaintzen duena laguntze-eskari sozialari arreta

egiteko, nola buru-gaitz larriko pertsonen hala haien familiei, irudi publikoa eta bizi-kalitatea hobetzen.

[argiafundazioa.org](http://argiafundazioa.org)

## **ARTXIBATEGI, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZENTROETAKO PROFESIONALEN EUSKAL ELKARTEA**

1990ean eratua Euskal Erkidego Autonomoaren eremuko elkarte profesionala, artxiboetan, liburutegietan eta dokumentazio- eta informazio-zentroetan informazioaren kudeaketaz arduratzen edo interesatzen diren profesionalak biltzera bideratua.

[aldee.org](http://aldee.org)

## **AXPE CONSULTING**

Aholkularitzako, sistemak integratzeko eta zerbitzuak kanporatzeko konpainia multinazionala, bere ezagutza, esperientzia eta ardura erakunde berrien eta XXI. mendeko beharren zerbitzura jartzen duena. Bulegoak ditu Madril,artzelona, Bilbo, Valladolid, Sao Paulo, Mexiko Hiria, Paris eta Londresen.

[axpe.com](http://axpe.com)

## **BIKONSULTING - GUZTIEN ONAREN ALDEKO AHOULKULARIA**

Sail desberdinetan espezializatutako aholkularitza: kalitatea, produkzioa, kudeaketa, branding-a, ingurumena, marketing-a, erosketak, merkataritza,... helburu nagusitzat guztien ona duten beste era bateko

erakundeen alde apustu egiten duena.

[bikonsulting.com](http://bikonsulting.com)

## **BINARY SOUL**

Mugimendua detektatzearen bitarteko bideo-joko eta ezarpen interaktiboaren diseinuan eta garapenean diharduen enpresa.

[binarysoul.net](http://binarysoul.net)

## **BIOPRAXIS RESEARCH**

Farmako berrien ikerkuntzan aritzen den enpresa, Praxis Pharmaceutical Taldeko Ikerkuntza eta Garapen Dibisioko eta 3 ikerketa-lerro irekiak dituena: terapia birsorgarirako bioteknologia, peptido sintetikoak eta sendagaien mikro- eta nano-kapsulatzea.

[grupo-praxis.com](http://grupo-praxis.com)

## **COACH AND PLAY**

Coaching exekutibo eta heziketakoa, helmugak lortzera eta balioa sortzera zuzendua erakundearen lidergo eraginkorra sustatuz, ahalmenen eta talentuaren garapena erraztuz, komunikazioa indartuz eta pertsonak eta taldeak ahaldunduz.

[coachandplay.es](http://coachandplay.es)

## **COMERCIAL DIVING ACTIVITIES**

Espainiako iparraldean urpekariz-zerbitzu profesional eta komertzialen lan eta zerbitzuak burutzen bere jardura zentratzen duen enpresa da, itsaso irekian proiektuak, portu- eta itsasertz-instalazioetako obrak, bai eta urtegi eta barneko ibai-guneetan



urpeko jarduerak barne-bilduz ere.  
cdabilbao.com

### DENBOLAN AHOLKULARITZA

Aesi Taldea Enpresa Holdingaren parte den aholkularitza eta sail desberdinetan zerbitzuak eskaintzen dituen: sormena eta berrikuntza, ekintzailetza, outplacement, pertsonal-aukeraketa, trebetasunen garapena eta talentuaren garapena.  
denbolan.com

### DENBOLAN ETT

Aldi baterako lana eskaintzen duen enpresa, giza baliabideen kudeaketan irtenbide efiziente eta malguak eskaintzen dituen, eskatutako lanpostuaren zehaztapenen arabera langilearen aukeraketa azkar eta eraginkorra eginez.  
denbolan.com

### DENBOLAN OUTSOURCING

Erakundearen core business-aren osagai ez diren zerbitzu haiek guztiak kanporatzeko irtenbide banakotuak, halako moldez non ahaleginak bere produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzen kontzentratzen.  
denbolan.com

### DOMOLAN SYSTEMS

Kontrol, kudeatze eta mantentze integratuean diharduen enpresa, tipologia desberdineko eraikuntzatan: bulegoak, polikiroldegiak, eraikin publikoak, negozio-zentroak, enpresak eta hotelak.  
domolansystems.com/

### DUCAMAR SPAIN

Espainiako iparralde- eta mendebalde-kostaldekoko itsas portuetan bildutako arrain izoztuaren esportazioa mundu osoko lantegi eta banatzaileetara, logistikaren kalitateari eta garapenari arreta

berezia eskainiz.  
ducamar.com

### EMOTIONAL NETWORK

Enpresa honen jarduera, esperientzia klinikokoan eta ikerkuntza neurologikoan oinarritutako adimen emozional eredu propio baten bitartez pertsona, talde eta erakundearen ahalmen emozionalak garatzen oinarritzen da.  
emotional.net

### ERAIN

COAS Heziketa Taldeko neska-mutikoentzako heziketa-egoitza, bikaintasunean eta berrikuntza pedagogikoan sostengatutako heziketa-apustu batekin.  
erain.es

### ERTZAINZA

Euskal erkidegoko polizia.  
ertzaintza.net

### EUSKAL VALLEY

Euskal ekintzaileen ekimena ezein erakunde publiko edo pribatuk babestu gabea eta lankidetzara irekia, eta helburu bakarra du: Euskadi teknologia berrietan ekintzailetza arrakastaz burutzeko leku bat izatea lortzea.  
euskalvalley.com

### EUSKO JAURLARITZA - HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Saila, honako ekintza-eremuetan aritzen dena: Justizia, Berrikuntza Publikoa, Funtzio Publikoa, Administrazio Erregistroak eta Toki Araubidea.  
euskadi.net

### EUSKO JAURLARITZA - OGASUN ETA FINANTZA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Saila, honako ekintza-eremuetan aritzen dena: Euskal Ekonomia, Aurrekontuak eta Kontrol Ekonomikoa, Ogasuna eta

Finantzak, Ondare eta Kontratazioa eta Informatika eta Telekomunikazioak.  
euskadi.net

### EUSKO JAURLARITZA - SEGURTASUN SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Saila, zeinen atzerkipean honako sailak aurkitzen diren: Ertzaintza, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia, Larrialdiei Aurre Egitea, Trafikoa, Joko eta Ikuskizun eta Hauteskunde Prozesuak.  
euskadi.net

### EUSKO KLIMA

Aire girotuko sistemen proiektuak, instalazioak eta mantenua garatzeko zerbitzu integrala.  
euskoklima.com

### EVENTOKIA

Kongresuak, gertaldi korporatiboak, feriak, inaugurazioak, ikastaroak eta konbentzioak bezalako gertaldiak diseinatu, sortu eta antolatzea, ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-irizpideak ezarri haien elementu guztietan.  
eventokia.com

### GALBAIAN

Mondragon Korporazioarena den Jabetza industrialeko Agentzia, jabetza industrial eta intelektual mailako zerbitzu integrala eskaintzen duena.  
galbaian.com

### HASTEN VENTURES

Enpresa-zerbitzuen firma, zeinek barruti desberdinetako proiektuei nazioartean urtetako esperientziak sortutako ezagutza eta kontaktu-sarearen ekarpena egiten duen.  
hasten.es

### HOME CARE LAB

Zerbitzu Sozial Integratuen Taldeko I+G+b enpresa-unitatea, zeinen

helburua gaitasun berritzaileei sendotzen laguntzea den zahartzearen eta mendekotasunaren inguruan; barruti horietan ikerketa-prozesu ireki eta lankidetzako baten bitartez lortutako ezagutza erakarriz, garatuz eta zabalduz.  
hclcoop.es

#### **IBAIZABAL EDITORIALA**

Heziketan espezializatua, editorial honek pertsonaren prestakuntza integrala dakar berekin. Horretarako, eduki kurrikular didaktikoak sortu, heziketa-zentroentzat zerbitzu profesionalak garatu, literatura editatu, eta jarduera kulturalak bultzatu eta/edo antolatzen ditu.  
ibaizabal.com

#### **IEFPS EASO POLITEKNIKOA**

Hastapeneko lanbide-heziketa (erdi eta goi mailako heziketa zikloak), prestakuntza jarraia (langile eta langabetuentzako ikastaroak), lanbide-prestakuntza eta -zikloetarako sarbide-ikastaroak ematen dituen heziketa-zentroa.  
easo.hezkuntza.net

#### **IGONBE DESIGN**

Hiri-altzariak eta erabilera pribatukoak diseinatzen eta garatzen aritzen den arabar enpresa, bai eta kontsumo-produktuak, plangintza estrategikoa, enpresa-diagnosia, ezarpena eta kudeaketa aurreratuko sistemen ebaluazioa egiten ere.

#### **IKASLAN ARABA**

Araba lurraldeko 11 zentro publikok osatutako elkarte, eta honako helburu hau du: Lanbide Heziketarekin harremana duen gai guztietan heziketa-munduan erreferentea izatea.  
ikaslanaraba.net

#### **IKASLAN BIZKAIA**

Bizkaiko lurralde historiko guztiaren 23 Lanbide Heziketako zentro publikok osatutako elkarte, eta honako helburua hau du: kalitatezko irakaskuntza modernoa eskaintzea, egungo merkatuaren beharretara egokitua eta, aldi berean, haren ikasleriaren giza prestakuntzaz arduratzen dena.  
ikaslanbizkaia.net

#### **INFORPRESS TALDEA**

Kanpo- eta barne-komunikazioa, EES, marka eta aipua, nazioartekotzeari laguntza ematea, Public Affairs eta e-komunikazioa® agendetan aholkularitza estrategiko zerbitzuak; sormen, ikerkuntza, plataformak eta argitalpenak, ekitaldiak, prestakuntza eta ikus-entzunezko komunikazioan zehar-lerroko zerbitzuak.  
grupoinforpress.es

#### **INORCON**

I+G+b proiektuen kudeatze integralean estatu-mailako erreferentzia den aholkularia, bai eta enpresentzat laguntza publikoak lortzen eta zerga kenkariak eskuratzen ere.  
inorcon.com

#### **K35 IT MANAGERS GROUP**

Zerbitzu teknologikoen enpresa, IT azpiegiturak hornitzen eta euskarritzen eta horiei laguntza-zerbitzuak ematen aritzen dena.  
grupok35.com

#### **KOMERTZ**

Beste erakundeentzat laguntza-lanak egiten dituen enpresa, era guztietako produktuak merkaturatzen estatuaren barrutian.  
komertz.com

#### **LET'S GO TEAM**

Team Academy metodologiaren Taldeka programatik sortua, enpresa horrek metodologia berritzaileak ezartzen ditu pertsonen talentua indartu eta beharrezkoak diren gaitasunak garatzeko enpresa-proiektuak bultzatzeko.  
letsgotraining.com

#### **LOIOLA BERRIKUNTZA FUNDAZIOA**

Urola Erdia eskualdea eraldatzea eta haren lehiakortasun posizionamendua hobetzea helburua duen garapen agentzia, berrikuntzaren, pertsonaren garapenaren eta talentuaren atxikitze eta erakartzearen bitartez, eskualdearen ongizateari ekarpena egingo dioten balio erantsi handiko jarduera berriak sortzeko.  
iraurgiberritzen.eus

#### **MET COMMUNITY**

Espanian, AEB eta Latinoamerikan presentzia duen nazioarteko lankidetz-plataforma, aniztasunaren, ekintzaitzeta femeninoa eta gizarte berrikuntzaren bitartez enpresa garapenean ekarpenak egin nahi dituzten profesional nabarmenez osatua.  
metcommunity.com

#### **NADIELABS**

Enpresetan, start-up-etan, hezkuntza- eta administrazio-arloetan, negozio-eredu berrietan eta produktu edo zerbitzu berrietan, ekintzaitzeta eta berrikuntzan aritzen den enpresa.  
nadielabs.net

#### **NEXIAN TRAINING**

Eremu guztietako profesionalentzako prestakuntza-enpresa. Prestakuntza-kredituen kudeaketa eta heziketa-planen antolamendua.  
nexiantraining.es

**NORANAI CONSULTING**

Aholkularitza hau hodeiko konputazio eruedetan dago espezializatua, Amazon Web Services eta Microsoft Office365 hodei zerbitzuen hornitzaile nagusiekin lan eginez eta partner izanez.

[noranai.com](http://noranai.com)

**ONE WAY LIVER GENOMICS**

Gaixotasunen diagnostiko goiztiarrerako produktuak garatzeko, bai eta komunitate zientifikora zuzendutako I+G zerbitzu aitzindarien eskaintzarako metabolomika erabiltzen duen enpresa bioteknologikoa.

[owlmetabolomics.com](http://owlmetabolomics.com)

**OPENAULA ON THE NET**

On-line prestakuntza-zerbitzuak, heziketa-ibilbideak diseinatzeko beharrezkoak diren metodologia eta teknologia eskaintzen dituztenak, prestakuntza eskaintzeko, zainketa egiteko, dinamizatzeko eta ikasleek ikasi ahal izateko beharrezkoa den euskarria.

[openaula.net](http://openaula.net)

**PERPETUALL SOFTWARE**

Zure kontaktuek egiten dituzten datu-aldaketek automatikoki abisua eman eta zure mugikorreko agenda automatikoki eta era seguruan eguneratzen dizun app-a.

[perpetuall.net](http://perpetuall.net)

**PUNTUEUS FUNDAZIOA**

Euskara eta euskal kultura sustatzearen, bai eta Hizkuntza Komunitatea eta Euskal Kultura batzaren helburuarekin 2008an sortutako proiektua. Euskara gainerako hizkuntzen maila berean kokatzeko ".eus" domeinua tresna gisa erabiltzea, haren normalizazioari lagunduz.

[domeinuak.eus](http://domeinuak.eus)

**SAMU CONSULTORES**

Aholkularitza juridikoa, kontablea eta fiskala.

**SAN JOSE DE CALASANZ IKASTETXEA**

Jarduera 1969an hasi zuen heziketa-zentroa eta egun haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, DBH eta administrazioan, merkataritza eta marketing-ean, osasungintzan eta komunitatearentzako zerbitzuetan erdi-mailako eta goi-mailako prestakuntza zikloak eskaintzen dituena.

[sjcalasanz.com](http://sjcalasanz.com)

**SUUMA & B10 PROJECTS**

Ezagutza arlo desberdinetan espezializatutako profesional taldea, inguruko enprekin laguntza-lanak egiteko beren indarrak batzen dituztenak, beren lehiakortasun-kokagunea era eraginkorrean hobetzen lagunduko duten proiektu eraldatzaileak bultzatuz.

[suuma.es](http://suuma.es)

**TECH FOR SOCIETY**

Berrikuntza-prozesu bati lotutako produktu- edo zerbitzu-garapenak honako helburu honekin: eraldaketa soziala, ezagutza-transferentzia, prestakuntza eta trebatzea, lehiakortasun eta bizi-kalitate handiagoa.

[techforsociety.com](http://techforsociety.com)

**THE HUMANS MOVEMENT**

the Humans´Movement (tHM) proiektua, gizarte-enpresa bat da eta bere misioa teknologia berrien eta "social Medien" bitartez, boterea gizabanakoei emanez mundua aldatzea da.

[thehumansnetwork.com](http://thehumansnetwork.com)

**WARANTUM**

Berme Erregistroaren sozietateak, modu zifratu eta seguruan, zure jabetzako artikuluekin zerikusia duten agirien kopia digitala biltzeko eta zaintzeko bitarteko teknologikoak eskaintzen dituen webgunea da.

[warantum.com](http://warantum.com)

**WIMI 5 DEVELOPMENT**

HTML5ean bideo-jokoak sortu, argitaratu eta monetizatzea errazten duen cloud plataforma, edozein web nabigatzailetan, ordenagailu eta gailu mugikor guztietan ikusgai izateko.

[wimi5.com](http://wimi5.com)

**XUPERA XXI**

Bezeroen harreman-proiektuen diseinua eta kudeaketa, interes talde desberdinen eta eragile parte-hartzaileen artean oreka bilatuz haien harreman-prozesuetako erabiltzaileekin: salmentak, erabiltzaileekiko arreta, saldu ostekoa eta fidelizatzea.

[xupera.com](http://xupera.com)

**innobasque**

berrikuntzaren euskal agentzia    agencia vasca de la innovación

# Esateko mila modu...



...egiteko modu bakarra.



INNOBASQUE eraten duten 1.000 erakundeetako bakoitzak, lankide diren eta beren esperientzia eta ezagutza partekatzen duten pertsonetako bakoitzak era desberdinean deskribatzen dute, baina guztiek argi eta garbi dute nola egin behar den.

**inno**basque

berrikuntzaren euskal agentzia    agencia vasca de la innovación